

**Inauteriak**

Donamaria, Arantza, Igantzi, Arraioz, Sara, Senpere...

**ERREPIDEAK → 10**

N 121A errepidea berriz heriotza eta kezka iturri

**DONEZTEBE → 22**

Tabakoa uzteko lan taldea sortu dute osasun zentroan

**ARESO → 31**

Mugikor zaharren bilketa helburu solidario batekin

**BAZTAN → 32**

Mediku euskaldunak eskatzeko kanpaina

**ERREPORTAJEA → 3-5**


## BOZAK KONTSEILU ETA ELKARGOETARAKO

**Herriko kontseilu eta**

**hiri elkargoetarako** bozak dituzte martxoan Ipar Euskal Herrian; 23an lehen itzulia eta 30ean bigarrena. Hautatze sistema berria estreinatuko dute aurten, duela 6 urteko bozekin konparatuz aldaketa batzuk ekarriko dituen; berteak berte, orain arte 3.500 biztanletik beheitiko herrietan pertsonak bozkatzeko ziren eta ez zerrendak. Aurten 1.000 biztanletik goitiko herrietan ere zerrende emanen zaie boza eta gizon-emazteki kopuru berdinarekin osatuak egon

beharko dute. Eta aurten lehen aldiz ere, paper berean bi zerrenda agertuko dira eta, hartara, herriko kontseiluko eta hiri elkargoetako ordezkariak hautatuko dira. Orain arte herriko kontseiluetan hautatzen ziren gero elkargoetara joan ziren hautetsiak.

Taldeak buru-belarri ari dira lanean aspalditik zerrendak eta programak prestatzen. Martxoaren 6rako lan horiek eginak eta dagokion tokian erregistratuak izan beharko dituzte.



Otsailaren 7an abiatuko da **Bardoak 2014**. Lesakan, Zubietan eta Erratzun ariko dira larunbatean. Gero, otsailaren 14an Beran eta 15ean Leitza.

→ 20

**KIROLAK → 40****Espainiako motokros txapelketan parte hartuko du Juan Mari Goñi beintzarrak**

25 urteko gazteari betidanik gustatu zaizkio moto eta kotxe kirolak, baina duela bospasei urte hasi zen motokrosean ibiltzen eta lehiatzen. Konpetizioa gustuko duela aitortu digu.

**ZOKKETAK → 48**

Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

# ELIZONDOKO ESKOLA PUBLIKOA

San Francisco Javier



Matrikulatzeko epea:  
Otsailaren 20tik 26a arte

Bertako kulturari  
garrantzia  
ematen diogu.

 Eskola publikoa aurrerantz!!!

[elizondoko.eskolapublika.net](http://elizondoko.eskolapublika.net)



**\*Otsaila\***

Berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonan edo [www.berakoagenda.net](http://www.berakoagenda.net)



**15** | **JAVIER MUGURUZAREN KONTZERTUA:**

LARUNBATA  
22:00 - Kultur Etxean  
Sarrera: 7€  
Argibide gehiago: <http://www.jabiermuguruza.net>



**21** | **HAURENTZAKO IPUIN KONTALARIA:**

ORTZIRALA  
Oihana Etxegibel  
"Haizeak Kontatutakoak"  
18:00 - Herri Liburutegian



**22** | **KALDEREROAK**

LARUNBATA  
19:00 - Illekuetatik herriko etxeko plazara  
Ibilbidea: Illekueta - Aitzate - Legia Zahar etxea - Eztegarra - Iturlandeta Eztegarra - Bidasoa karrila - San Esteban karrila - Herriko etxea  
OHARRA: Eguraldi berra eginez gero, eskolako pilotalekuan

## inauteriak

**4** | **ARNASGUNEA: zaintzaileei zuzendutako tailerra**

OTSAILAREN  
AITZINEHA  
ASTEARTERO  
12:15-13:30  
Otsailaren 4an hasiko da Beran Aste bat Beran, bertzea Lesakan  
Kordinatzailea: Ramoni Ordoki  
Doako zerbitzua  
Izen-ematea: 948 635 036 | [ssb@lesaka.net](mailto:ssb@lesaka.net)  
Antolatzailea: Bortzietako Gizarte Mankomunitatea

**26** | **INAUTERITAKO KONTZERTUA:**

ASTEAREN  
17:30 - Kultur Etxean  
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Musika Eskola

**2** | **INUDE ETA ARTZAIAK:**

IGANDIA  
10:00etatik aitzinera goiz osoan herrian barra Eztegarra pilotalekutik hasita  
18:00 - Eztegarra pilotalekutik Aitzateko karrilara  
Antolatzailea: Guri Txokoak Elkarte

**27** | **ORTZEGUN GITZENA:**

ORTZEGUNA  
15:45 - Suhiltzaileen Parketik Eztegarra pilotalekura  
16:30 - ZEREN ZAIN Taldea Eztegarra pilotalekuan  
OHARRA: Eguraldi berra eginez gero Eztegarra pilotalekuan 16:00etan

**3** | **INAUTERITAKO ASTELEHENA:**

ASTELEHENA  
Golzean zehar zingar-arrautzea  
19:00-20:00 - AFRIKA LJON Taldearekin Aitzateko karrilan



GIZARTEA → HAUTESKUNDEAK IPAR EUSKAL HERRIAN

# Aldaketekin iraganen dira martxoaren 23 eta 30eko herri bozak

## Bozen sisteman aldaketa izanen du Sarak

Orain arte, 3.500 biztanletik beheitiko herrietan pertsonak bozkatzzen ziren, eta ez zerrendak. Aurtengo bozetan, mila biztanletik goitiko herrietan gizon-emakumez parekidea den zerrendari emanen diete boza. Herri edo hiri elkargoko ordezkariak ere hautatuko dituzte.

### G. PIKABEA


Hego Euskal Herrian lau urtetik egiten diren bezala, Ipar Euskal Herrian, sei urtean behin egiten dira herriko kontseilua edo udala aukeratzeko bozak. Aurten egokitu dira eta hortxe daude ate joka: martxoaren 23an eta 30ean egingen dira.

Hauteskunde sistema desberdina da Hegoaldean eta Iparraldean: alderdien eragina ttikiagoa da Ipar Euskal Herrian, zerrenda irabazleak aukien gehiengo osoa ziurtatua izaten du, hautetsi kopurua Hego Euskal

Herrikoa baino handiagoa da, Iparraldean ezin da korreo bidez bozik eman baina ordezkari bidez eman daiteke horretarako behar diren paperak beteta... Gainera, Iparraldean berean, aurtengo bozak desberdinak izanen dira, Frantziako Parlamentuak 2013ko maiatzaren 17an onartutako legeak aldaketak ekarri baititu.

### 1.000 ETA 3.500 BIZTANLE ARTEKO HERRIETAN ALDAKETAK

Aldaketa horiek tarteko, orain arte 3.500 biz-



### BOZAK

**Bozak martxoaren 23an eta 30ean egingen dira. Hautagaitzak martxoaren 6rako aurkeztu beharko dira eta kanpaina ofizialki bi egun beranduago hasiko da.**

tanletik goitiko herrietan erabiltzen zen sistema, orain mila biztanletik goitikoetan ezarri dute. Oraindainokoa, 3.500 herritarretik goitiko herrietan herriko kontseiluan sartzeko zerrenda osatu behar izaten zen eta herri

ttikiagoetan pertsonen alde bozkatzzen zen. Lege berriarekin mila biztanletan utzi dute muga eta kopuru horretatik goitikoetan alde bozkatu beharko dute eta beheitikoetan pertsonen alde. Gisa berean, herri ttiki herrietan ezin izanen da bere burua hautagaitzat aurkeztu ez duen inoren alde bozkatu. Orain arte boz-emaileak bozetara aurkeztzen ez ziren izen batzuk ere proposatzen ahal zituen, baina lege berriarekin ez. Aldaketa nabarituko duten Ipar Euskal Herriko 25 herrien

artean, bakarra da eskualdekoa, Sara. 2.564 biztanlerekin, boz hauetan zerrendaren alde bozkatu beharko dute saratarekin eta ez pertsonen alde. Senperen (5.865 biztanle) eta Azkainen (3.884 biztanle) lehen ere zerrendak bozkatu izan dituzte.

Berdintasunerako bidean bertze aldaketa bat ere ekarri du legeak. Mila biztanletik goitiko herrietan zerrenda parekideak osatu beharko baitira. Hau da, zerrendako erdiak emaztekiak eta bertze erdiak gizonetzkoak izan beharko dute, eta txandakatuz agertu beharko dute, lehenbizikoa emaztekiak bada bigarrena gizonetzkoa eta horrela zerrenda osatu arte, eta alderantziz.

### HIRI ELKARGOKO ORDEZKARIAK ERE BAI

Hirugarren aldaketa nagusia herri eta hiri elkargoetako kontseilariak ere bozkatu beharko dira da. Orain arte, herriko kontseiluan erabaki-

### MILA BIZTANLETIK BEHEITIKO HERRIAK


- **Boza pertsonai:** banaka edo zerrendan aurkeztu diren hautagai ematen ahal zaie boza.
- **Boza hautagai izan direnei bakarrik:** orain arte, bozetan aurkeztu ez zirenek ere boza jasozaketen, boz-emaileak izen berriak proposatzen ahal baitzituen. Orain hautagai aurkeztu direnei bakarrik ematen ahal zaie boza.
- **Bozen erdia:** lehen itzulian, hautetsi bihurtzeko hautagai bakoitzak bozen erdia baino gehiago behar du. Bigarren itzulian boz gehien lortu dituztenak bilakatuko dira hautetsi.

### MILA BIZTANLETIK GOITIKO HERRIAK

- **Boza zerrendei:** boza zerrendei eman beharko zaie eta zerrenda horiek ezin izanen dira aldatu.
- **Hiri elkargoko ordezkariak ere bozkatu dituzte:** boza ematerakoan paper berean herriko kontseilukoa eta herri edo hiri elkargoko zerrendak agertuko dira. Talde bakoitzak izen batzuk proposatu beharko ditu elkargorako, herriko kontseilurako zerrendan hautagai direnak.
- **Zerrenda parekideak:** gizon bezainbertze emazteki egon beharko dute zerrendetan eta txandakatuz.

tzen zuten elkargotara zein ordezkari joanen zen, baina aurrez bozen bitartez izanen dira hautatutakoak. Mila herritarrez beheitikoetan herriko kontseiluko berdinak izanen dira elkargoko ordezkari. Auzapeza zuzenean izanen da ordezkari eta lehen axuantak eta gainerako hautetsiak boz kopuruaren arabera.

Milatik goitiko herrietan, bi zerrenda izanen dira boz paper berean, herriko kontseiluko eta herri edo hiri elkargoko. Zerrenda bakoitzak izen batzuk proposatu behar ditu elkargorako, herriko kontseilurako zerrendan hautagai direnak. Ordezkariak proportzionalki banatuko dira. Hala, aulkien erdia irabazleek eskuratuko dute eta gainerako erdia bozen arabera banatuko da. Saran kasu, herriak hiru ordezkari izanen ditu elkargotan, eta zerrenda bakoitzak lau izen proposatu behar ditu. Elkargoan Sarak izanen dituen bi lehendabiziko ordezkariak zerrenda irabazlekoak izanen dira, eta boz kopuruaren arabera, hirugarrena zerrenda irabazlekoa edo oposizioa izanen da.



#### IRABAZLEAREN NAGUSITASUNA

Mila biztanletik beheitiko herrietan, lehen itzulian pasatzeko bozen er-

dia baino gehiago behar da, eta boz kopuru hori lortu dutenak hautetsi bilakaten dira zuzenean. Lehen itzulian hautetsi

izendatzeko behar diren boz kopururik ez bada, hautagaiak bigarren itzulira aurkeztu behar dute. Bigarren itzulian, boz-ge-

#### KONTSEILARI KOPURUA

Biztanleriaren arabera, Herriko Kontseilua osatuko duten ordezkari kopurua desberdina da. Saran 23 hautetsi hautatuko dituzte, Azkainen 27 eta Senperen 29.

hien lortu dutenak izanen dira hautetsi eta horien artean bozkatuko dute auzapeza nor izanen den.

Milatik goitikoetan, irabazten duen zerrendak aise gobernatzen du. Zerrenda batek lehen itzulian gehiago absolutua lortzen bada, aulkien erdia lortuko du eta bertzeko erdia bozen %5 baino gehiago lortu duten guztien artean banatuko da, lehen indarra barne. Gehiago absoluturik ez bada, bozen %10 lortu dutenak pasako dira bigarren itzulira. %5 baino gehiago eskuratu dutenak ere bertzeko zerrendaren batekin bat egin eta bigarren itzulira pasatzeko aukera izanen dute. Kasu honetan ere, boz gehien bildu dituenak aulkien erdia lortuko du eta bertzeko erdia %5 baino gehiago lortu duten guztien artean banatuko da, indar irabazlea barne.

#### HEGO LAPURDIKO HIRIGUNEA

### Hiri elkargoko kontseilariak ere martxoko bozetan bozkatuko dituzte

**Azkaine, Sara eta Senpere** Hego Lapurdiko Hirigunean sartuak daude, bertzeko bederatzi herriekin batera: Ahetze, Ainhoa, Arbona, Biriartu, Ziburu, Getaria, Hendaia, Donibane Lohizune eta Urruña. Herri hauek 2001ean Hego Lapurdiko Lurralde Antolaketa Eskemaren (LAE) baitan hasi ziren elkarlanean, eta 2005ean Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoa sortu zuten. Zazpi urtez herri elkargoaren baitan lan egin ondoren, 2012ko abenduan herri elkargotik hirigunera pasatu ziren. Horretarako baldintzak 50.000 biztanle baino gehiago izatea eta tartean 15.000 biztanle baino gehiagoko hiri bat izatea ziren, kasu honetan Hendaia. Hirigunea osatu dutenetik Frantziako Gobernutik diru laguntza gehiago hartzen dute, baina eskumen berriak ere hartu dituzte herriek beraien gain. Lurralde antolaketa eta garapen ekonomikoaz gain, etxebizitza politikaz, bideen eraikitze, antolatze eta mantentzeaz, uraren eta saneamenduaren kudeaketaz, ingurumenaz, euskaraz, kultura, kirola, ama eskolako eta lehen mailako ekipamenduz eta mugazgandiko kooperazioaz arduratzen da, bertzeko bertzeko, hirigunea. 37 kontseilari osatzen duten Elkargoko Kontseilurak kudeatzen du hiri elkargoa.

Hamahiru batzordetan antolatuta egiten dute lan, eta zuzendaritza edo bulego bat ere badute, lehendakariak eta hamalau kidez osatua. Elkargoko lehendakaria Michel Hiriart Biriartuko auzapeza da eta **Sara, Senpere** eta **Azkaine**ko auzapezak bulegoko kide dira. Martxoko bozetan herri eta hiri elkargoetako kontseilariak ere bozkatuko dituzte **Azkaine, Sara** eta **Senpere**ko herritarrek.



- 64.863 biztanle 2010ean
- 270 km<sup>2</sup>-ko azalera
- % 34 laborantza lur
- % 9,5 lur urbanizatu

Iturria: [www.agglo-sudpaysbasque.fr/eu](http://www.agglo-sudpaysbasque.fr/eu)

**AGINTALDIAREN BALORAZIOA**

**Battitt LABORDE | SARAKO AUZAPEZA**

# «Sistemak auzapez bat izatera derrigortzen du, baina auzapezak talde on bat ez badu ez du fitsik egiten»

2008ko bozetara aurkeztu ondotik, auzapez aukeratua izan zen Battitt Laborde 50 urteko saratarra. Lehendik ere bazuen herriko kontseiluko lanaren berri, 1995etik 2001era hautetsi izana baitzen. Duela sei urte «herriak alternatiba bat behar zuelako» aurkeztu zen Geroko Sara taldearekin. Ez omen zuen auzapez izatea helburu, baina lehen itzulian bigarren bozkatuena izan zen eta hautetsien artean bera hautatu zuten lehen aldikoz auzapez izateko. Sei urte hauetan ez da auzapezaren lanera bakarrik dedikatu, lanbidez iturgina da eta iturgintzako bere enpresan ez ezik, etxaldean ere aritu da. Hala ere, onartu digunez, «iturgintzan orain baino gehiago aritua naiz. Auzapezaren ardurak denbora hartzen du eta hirigunean garenetik gehiago». Bere hitzetan, «lehen herriarentzat zuzenean ziren laguntzak, orain beti hirigunetik pasatu behar dute eta gu bezalako herri tikiak hobe dugu hirigunera maiz joan». Berari ez ezik, axuantei ere denbora kentzen diela kontatu digu. Lantaldearen garrantzia ere azpimarratu du: «taldea baitaezpakoa da. Sistemak auzapez bat izatera derrigortzen du, baina auzapezak inguruan talde on bat ez badu ez du fitsik egiten». Elkarlana ere azpimarratu du Labordek: «auzo herriekin lanean aritu gara eta elkarrekin proiektuak aitzinera ateratzea aberasgarria da». Horrekin batera, erran digunez, «eginahalak egin ditugu herria aitzinera eta ahal bezain gorat eramateko. Herria maite dugu eta talde osoa herriaren alde aritu gara».

**LEHEN AGINTALDIA**

Sei urte egin ditu Battitt Labordek Sarako auzapez. 2008ko bozetan bigarren bozkatuena izan zen eta hautetsiek bera izendatu zuten auzapez.



Agintaldiko proiektu nagusiak zahar etxe berria eta zaharrarekin egindako lanak izan dira: «zahar etxe berria egin genuen, eta zahar etxe zaharra erosi eta lehen zatia antolatu dugu, medikuak emateko, bortz bizitza adinekoendako, gela batzuk elkarteentzat eta komertzioentzat...». Gainera, hila-bete honen hondarrean dute inauguratzeko. «Gure aitzinetik herriko kontseiluan zirenek hasitako lanak bururatu ditugu. Herriarentzat beharrezkoak zirenak bururatu ditugu», azaldu digu. Egindakoarekin kontent gelditu da saratarra, eta «gozatu» duela ere aitortu digu. Are gehiago, «niretzat eta taldearentzat esperientzia zoragarria izan dela» dio. Horregatik martxoaren 23an eta 30ean iraganen diren bozetara berriz aurkeztuko dira Laborde eta bere taldea.

**BALORAZIOA**

«Eginahalak egin ditugu herria aitzinera eta ahal bezain gorat eramateko»

**PROIEKTU NAGUSIAK**

«Zahar etxe berria egin genuen eta zaharra erosi eta lehen zatia hainbat gauzetarako antolatu dugu»

**ESKUARA**

«Sara herri eskualduna da, baina Ipar Eskual Herrian lan handia egin behar da eskuara salbatzeko»

**2008KO HERRI BOZAK**

**SARA**

Zentsoa: 1 873      Parte hartzea: 1 576  
Abstentzioa: 297

**Lehen itzulian aukeratuak**

	Alderdia	Botoak
P. Arotzarena	Geroko Sara	893
B. Laborde	Geroko Sara	868
J. M. Jauregi	Geroko Sara	864
P. Indaburu	Geroko Sara	836
M. H. Oronoz	Geroko Sara	833
P. Barneix	Geroko Sara	816
H. Dutournier	Geroko Sara	811
F. Barreneixe	Geroko Sara	793
C. Sorhouet	Geroko Sara	792
M. Urbistondo	Geroko Sara	772
P. Errandonea	Geroko Sara	767
M. Soudre	Geroko Sara	756

Parte hartzea: 1 444  
Abstentzioa: 429


**Bigarren itzulian aukeratuak**

	Alderdia	Botoak
J. Barreneixe	Geroko Sara	759
P. Sahastume	Geroko Sara	753
C. Mendionde	Geroko Sara	737
J. M. Irazoki	Geroko Sara	724
D. Roudier	Geroko Sara	723
A. Londaitz	Segida	693
F. Iparragirre	Segida	691

**SENPERE**

Zentsoa: 4 040      Parte hartzea: 3 100  
Abstentzioa: 940

	Alderdia	Botoak	%
C. Bessonart	Elgarrekin	1 582	52,73
P. M. Nousbaum	Senpere 2008	956	31,8
J. F. Bedere	Egun eta bihar	462	15,4




Botoen erdia baino gehiago eskuratuta, 2008ko herri bozetan lehen itzulian gailendu zen Christine Bessonart. Hortaz, ez zen bigarren itzuliaren beharrik izan. Bessonarteren Elgarrekin taldeak 21 aulki lortu zituen, bigarren bozkatuena izan zen Senpere 2008 taldeak 4 eserleku ukan zituen eta Senpere egun eta bihar taldeak bi hautetsi.

**AZKAINA**

Zentsoa: 3 168      Parte hartzea: 2 525  
Abstentzioa: 643

	Alderdia	Botoak	%
J. L. Laduche	Altxa Azkaine	1 235	50,33
M. P. Bourdon	Haize Berri	776	31,62
A. Lacarra	Ideki	443	18,05



2008ko herri bozetan, lehen itzulian gehien-go osoz irabazi zuen Jean Louis buru zuen Altxa Azkaine taldeak. Gisa honetara, Altxa Azkaine taldeak 21 aulki eskuratu zituen. Haize Berri taldea bigarren bozkatuena izan zen eta lau hautetsi izan ditu sei urteko agintaldi honetan eta Ideki taldeak, bozetako hirugarren indarrak, bi hautetsi izan ditu.





**Nire txanda**  
Ruben GARATE

## Inauteriak

Urtarrila gibelean utzi eta otsaila da dagoneko. Kanpoan hotza eta euri zaparrada ikaragarriak botaz, egunen batean erabat ximurtu edota ur azpian bizirauteko arrainei bezalaxe brankiak irtengo zaizkigula pentsatzerainokok. Mendi kaxkoak zurituta daude eta elurra beheiti dator, krisia ere geroz eta gertuago... baina oraingoz utzi alde batera kontu ilunak, herriak kolorez eta alaitasunez janzten diren sasoia iritsi baita. Heldu dira inauteriak. Ituren, Zubieta eta Aurtizko joldunek aurre egin zieten euriari, Sunbillako karrozak ere halatsu eta Baztan-Bidasoa inguruko herri guztietara ere iristen ari da besta giroa. Besta handia edo modu xumeagoan ospatzen dena, koloretako mozorroak soinean, mota guztietako maskarak aurpegian, akordeoi eta trikiti doinuak karriketan... Goza itzazue inauteriak, bizitza laburra da eta!


### Ezpala

Aitor AROTZENA

## N-121-Aren erruz %4a

Hamalau urtez 72 hildako utzi ditu Iruña eta Behobia arteko errepideak. Kilometroko bat. Araberan, Behobia eta Bilbo arteko autopistetan 118 hildako izanen lirarteke, edo Iruña eta Tuteran artean 96. Baina errepidearen erruz istripuen %4 bertzetik ez omen da izan. Hala dio Sustapen kontseilariak. Ez da ohartzen bidean senidea edo laguna galdu duenak ez dituela portzentajeak maite.

## Nabarmentzekoak



Gaizka SARASOLA  
Antzerki-gidoia saritua

Café Bar Bilbao antzerki gidoi laburren hamekagarren lehiaketako saria irabazi du lesakarrak, euskarazko lanen atalean, *Lurrazpikoak* lanarekin. 1.400 euroko saria jasoko du.



Ramoni ORDOKI  
Zerbitzu berria Bortzirietan

Zantzaileei zuendutako tailerra abiatuko da otsailean, Bortzirietako Giarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik. Psikologo lesakarrak izanen da zerbitzu honen koordinatzailea.



Juan Mari GOÑI  
Beintzako motor gidaria

Lehendik Holanda, Frantzia edo Katalunia-ko probetan esperientzia baldin badu ere, aurre lehen aldiz Espainiako moto-kros txapelketa osorik egiteko asmoa du.

Atzera begira → 2004.02.05 / TTIPI-TTAPA 367 zk.



### Ana Mari Marin margolariaren lana eta bizia liburuan bildua

Moldeak hautsi dituen emakumearen lana eta bizia liburu batean bildu dira. Izenburu horrekin eman zuen ttipi-ttapa margolari, alkate, kantari eta bertze hainbat *ofizio* izan dituen Ana Mari Marin elizondarrari buruzko liburuaren berri duela hamar urteko erreportajea. Izan ere, ezinezkoa da emakume hau hitz bakararekin definitzea. Jorge Oteiza zenaren lagunmina ere izan zen. Margolaritzari dagokionez, «Baztan eta Bidasoa erreka osoak kolore zoragarriak dituzte udazkenean, gorrixa horiek ederrak dira, Hondarribiako barkuak, Baztango mendiak...» aipatu zigun bere estudioan.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Erredakzioa Eneitz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruña eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....40€	Europa	.....59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....34€
Ipar Euskal Herria	.....59,50€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

# Elebitasuna Nafarroako eremu euskalduneko osasungintzan

Xabier ZARANDONA ZUBERO (4810611 Kolegiatu zenbakiduna) eta Iñigo JAKA ARRIZABALAGA (2002853 Kolegiatu zenbakiduna)

**N**afarroako eremu euskalduneko udalek lurraldean ematen den osasun arretan elebitasunaren aldeko kanpaina hasi dutela jakin dugu, eta ekintza horregatik zoriondu nahi ditugu; izan ere, oinarritzko eskubide baten defentsa mahaigaineratzen duela pentsatzen dugu. Nafarroako Foruaren, Estatua- ren, Europar Batasunaren eta Nazio Batuen legeriek onartzen duten giza eskubide bat da; baina, aldi berean, Osasunbidea behin eta berriz ez errespetatzen tematzen da.

Ez dugu legeez solastatu nahi, horietaz mintzatu izan baikara Osasunbideari eta Nafarroako beste erakunde batzuei erreklamazioak aurkeztu dizkiegunean. Inplikatura dagoen erakunde- ren batek ere ez digu erantzun; bai, ordea, Osasunbideak, ke- xurik ez dagoela argudiatuz, eta beraz, arazorik ez dela diote gaixoak hobekien menperatzen duen hizkuntza edota bere oi- narrizko eskubideen baitan erabili nahi duen hizkuntza hori me- diku edota erizainak ez dakienean.

Nafarroan, euskaldun biztanleei gehigarri bat eskatzen zaie: bi hizkuntza ofizialak menperatzea. Osasun arloko langileei, ordea, hizkuntzetako bat jakitea baino ez zaie eskatzen. Normala al da hori? Onargarria al da euskaldun eremuan lan egiteko gaitasun profesional nahikotzat jotzea hizkuntza bakarra menperatzea? Koherentea al da lurralde horietan lan egiten duten unibertsita- rioek hizkuntza-gaitasun nahikorik ez izatea eta, aldi berean, administrazioak landa inguruko eta baserriar biztanleei bi hizkuntzak jakitea exiji- tzea?

Ez ditugu aipatu gabe utzi nahi artatu ditugun gai- xoak, kontsultara "itzultzailearekin" etorri behar izan dutenak; eta medikua euskalduna zela iku- sita, gurekin zuzenean mintza zitezkeela frogatu zutenean erakutsi ziguten poztasuna deskribae- zina da. Familia medikua da, azken finean, hur- bilekoena izateagatik, pazientearen pribatutasun eta konfidentziasun eskubideak bermatuko di- tuen erlazioa mantentzeko gai izan behar duena. Gaixoak Iruñeko ospitaletara urgentziaz igorri be- har izan ditugunean, zenbait erresistentzia era- kutsi izan dute, beste arrazoien artean, itzultzaie- laren bat beraiekin egon ezean, ezer edo gutxi ulertzen zuten gune batera joan behar zutelako.

Adibide grafiko bezala, Iruñeko ospitaletako larrialdietako histo- ria kliniko batean, sinatzaileetako batek irakurritakoa: "Imposible comunicar con el paciente porque solo habla vascuence". Mai- la baxuagokoak ote dira nafar hiritar hauek? Atzeritarrak al di- ra bere lurraldean Osasunbidearentzat? Gertaera hauek ez lira- teke posible izan beharko giza eskubideen errespetua nagusitu behar den gizarte demokratiko batean.

Gaixoarekin egiten den komunikazioa funtsezkoa da mediku- egintzan, eta berau pazienteak ondoen dakien edo beronek be- re eskubideen ariketan aukeratzen duen hizkuntzan egin behar da. Sendagile-gaixo arteko komunikazio ona nahitaezkoa da, ja- saten duen gaixotasuna ezagutzeko eta tratamenduari zein pre- bentzio neurriei ongi atxikitzeko. Komunikazio-ariketa funtsezkoa da pazienteari bere gaixotasunarekin erlazioatutako guztiaren berri emateko. Pazientearen Autonomia Legeak dioen bezala, informazioa "gaixoak ulertzeko eran" eman behar da, bere bai-

mena eman behar duelako edozein eratako miaketa edo inter- bentzio terapeutiko egiterakoan.

Osasun arloan ere, anitz dira, egun hauetan, erbestera joan be- har izan duten profesionalak, gertatu diren murrizketak direla eta. Badakite herrialde horietako agintariek zein Sendagile Elkarteek gaitasun linguistikoa eskatuko dietela herrialde berriko hizkun- tzan. Beraiek hizkuntza-gaitasuna gaitasun profesionalaren ele- mentutzat dute. European zentzuduna den inork ez du zalantzan jartzen dena delako lanbidean jarduteko hizkuntzen ezagutza bal- dintzatat jartzea. Bai, ordea, Osasunbideak, eremu euskaldune- ko errealitate soziolinguistikoa ez errespetatzeko gai dela eraku- tsi baitigu behin eta berrito.

Hain zuzen ere, egoera soziolinguistikoko honek derrigortu beharko luke Osasunbidea euskarazko profila duten lanpostuak legeak es- katzen dion bezala hornitzera. Nafarroako Parlamentuak agindu beharko luke Nafarroako Euskararen Legea betetzeko, eta hori horrela izan dadin, euskara eskakizuna duten lanpostuak ugari- tzeko aukera emango lukeen araudia egokitzeko. Espainiako go- bernuak sinatu eta berretsi zuen Europako Hizkuntza Gutxituen Gutuna aintzat hartuz, Osasunbideak erraztasunak eman behar- ko litzuke eremu euskaldunetan lan egiten duten langileek hizkun- tza eskakizuna egiazta dezaten. Era berean, langile berriak kon- tratatzerakoan, elebidunak izan daitezkeen bermatu beharko luke, horrela, hizkuntza-gaitasuna gai- tasun profesionalaren elementu bezala kontside- ratuz.

Ez da egia Osasunbideako arduradunek ematen duten erantzuna, osasun arloko langileak kontra- tatzerakoan hautagai elebidunak ez dela argudiat- zean. 2013. urtean langile elebarrak bete di- tuzte euskaldun eremuko bi lanpostu, erizain lan- postu bat Jauntsaratsen eta mediku lanpostu bat Elizondon, elebitasun ziurtagiridun hautagaiak eta administrazioak eskatutako zerbitzuekin betetze- ko exijitzen dituen gaitasun profesionalerako be- tekizun guztien jabe ere baziren.

Zenbait politikariek legea bete nahi ez dutenean egiten duten demagogiaren aurka ere atera nahi dugu. "Mediku onak nahi ditugu, kalitatezko zerbi- tzua eman dezatela, mintzatzen duten hizkuntza- ri garrantzirik eman gabe", diote. Eta nork esaten die beraiei me- diku elebidunak, elebidun izateagatik elebarrak bezain onak ez direnik? Ezagutzen ditugun mediku euskaldun gehienek hiru-lau hizkuntzatan hitz egiten dute, eta hain zuzen ere ingelesa da berri- tasun zientifiko interesgarrienak argitaratzeko erabiltzen den hizkun- tza. Eric Kandel, Robert Lefkowitz edo Shinya Yamanakaren iker- ketei buruz jakin nahi duenak ingelesez argitaratzen diren Cell edo Nature bezalako inpaktu handidun aldizkarietara jo beharko du.

Bukatzeko, dagokion eskubide hori eskatzera gonbidatu nahi di- tugu herritarrek, Nafarroako Parlamentuan 1986an onartu zen Eus- kararen Foru Legeak ez baititu alferrik babesten. Horrela, gure iri- tzi, bidegabekoa den egoera bati amaiera emango litzaiokete eta pribatutasun eta konfidentziasunari onera egiten lagunduko lio- ke. Oro har euskaraz hobeto adierazten diren, edo, sinpleki, ofi- ziala den hizkuntza batean artatuak izan nahi dutenen arretaren kalitatea hobetuko litzateke.

«Eta nork esaten die beraiei mediku elebidunak, elebidun izateagatik elebarrak bezain onak ez direnik? Ezagutzen ditugun mediku euskaldun gehienek hiru eta lau hizkuntzatan hitz egiten dute, eta hain zuzen ere ingelesa da berri- tasun zientifiko interesgarrienak argitaratzeko erabiltzen den hizkuntza»

erik garrantzirik eman gabe", diote. Eta nork esaten die beraiei me- diku elebidunak, elebidun izateagatik elebarrak bezain onak ez direnik? Ezagutzen ditugun mediku euskaldun gehienek hiru-lau hizkuntzatan hitz egiten dute, eta hain zuzen ere ingelesa da berri- tasun zientifiko interesgarrienak argitaratzeko erabiltzen den hizkun- tza. Eric Kandel, Robert Lefkowitz edo Shinya Yamanakaren iker- ketei buruz jakin nahi duenak ingelesez argitaratzen diren Cell edo Nature bezalako inpaktu handidun aldizkarietara jo beharko du. Bukatzeko, dagokion eskubide hori eskatzera gonbidatu nahi di- tugu herritarrek, Nafarroako Parlamentuan 1986an onartu zen Eus- kararen Foru Legeak ez baititu alferrik babesten. Horrela, gure iri- tzi, bidegabekoa den egoera bati amaiera emango litzaiokete eta pribatutasun eta konfidentziasunari onera egiten lagunduko lio- ke. Oro har euskaraz hobeto adierazten diren, edo, sinpleki, ofi- ziala den hizkuntza batean artatuak izan nahi dutenen arretaren kalitatea hobetuko litzateke.

## Irakurleak mintzo

## Berroeta

Ramon APEZETXEA

2013ko Baztandarren Biltzarra egunean, Berroetako herria txapel-dun. Lan handia karroza prestatzen, ibilaldi bikaina Elizondoko karrikatan eta merezitako saria.

Eliza berritzearen inaugurazioa. Bai, soldadu frantsesak erre egin zuten orain 200 urte gutxi gora behera, eta famili baten laguntzari esker, dena berritu zen barrendik. Hau gaia. Argazkian dagoen eliza hori, herriko gazte batek egina bakar bakarrik: losu Gamiok. 2.000 harri inguru prestatu zituen lan bikain hori egiteko. Zorionak denoi, eta bereziki losu Gamiori. Behinere ez da berandu jendea zoriontzeko.



Nork erran dezake herri txikietan ez dakigula gauza ederrak egiten?

## Berehalako neurriak N-121A errepidean

Jon ABRIL  
(Berako alkateordea)

Bertze bi pertsona eraman ditu N-121A errepideak. Oraingo honetan nire herrian bertan, lanetik etxerakoan egunero pasatzen naizen tokian. Egun batzuk lehenago, lesakar gazte batek istripua izan zuen tokitik metro eskas batzuetara. Eta biharamunean kamioi bat bidetik atera zen toki berean. Oraingo honetan, zuei egokitu zaizue, Pello eta Alberto. Ezin dut zuen irudia burutik kendu. Oroitzen dut,

## Bota bertsoa

## LEITZAKO BERTSO ESKOLA

## Politikariei koplak

Kutxa beltza eta giltza elur zuri eta Suitza gora ta gora herria, bizitzeko da bizitza.

Lehengon jausi zen Angela Merkel eskin zebilela ez dulako eskiatzen agintzen duen bezela.

Hollande beti neska bila osatuz lige kuadrila frantsesa praktikatzeko a ze nolako mutila.

Hara zer dugun aditu Ariel Sharon da akitu pena bakarra ez zela lehenagotikan garbitu.

Borboitarren nagusia dago nahasten hasia guk ez diogu itxiko beste alderako hesia.

Lehen lerroan gudari atzealdean gidari ez dute ba Berlusconi langabezira bidali?

Erukia eta pena esames eta kondena bizi ezin den bizia da politikariena.

Pello, zure planteamen duak defenditzeko zenuen energia. Eta zure alaitasuna eta ahotsa, Alberto, Burlatako bestetako bazkalondoan.

Errepideko toki hori gero eta sentiberagoa zait. Egunero, lanetik itzultzen naizenean, Zalain auzoko toki horretan, zuekin oroitu naiz. Eta oroitu naiz, tamalez, ez zaretela bakarrak izan toki horretan bizia galdu duenak. Eta oroitu naiz, ez dela lehenbiziko aldia Berako Udalak bide-tarte horretarako irtenbide bat eskatzen duena. Bide-tarte hori izan baitzen errepide berria egiterakoan berri ez zen bakarra. Bide-tarte zaharkitua, arriskutsua, bermerik eskaintzen ez duen zorua, eta seinalizatzen ez duena.

Errepidea moldatzen hasi aitzinetik salatu genuen errepide-zati hau ez

zela aski izanen, egunero bertatik joan-etorrian ibiltzen diren auto eta kamioientzat motz geldituko zela.

Zuen faltak mintzen nau, Pello eta Alberto. Eta zuek gogoan zaituztedala, lanean segiko dut Nafarroako Gobernuak aditu dezan Udal honek eta beratarrek egiten dugun eskaria, baldintza onetan dagoen errepidea nahi dugula. Segurtasuna eskatzen dugu. Eta abiadura eta trafikoa gutitze

neurriak. Zergatik ez du inork eskatzen garraio publikoa areagotu dadila, autoak errepidetik ateratzeko? Zergatik ez da neurririk hartzen nazioarteko helmuga duten ibilgailu kopurua murrizteko? Zergatik ez dira kamioi horiek horretarako egindako autopistetatik bideratzen? Zergatik egiten dio entzungor Gobernuak gure eskariei? Besarkada bana, Pello eta Alberto!



**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
 Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**  
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Telesailetan antzezlanetan baino gustorago aritu izan naiz. Badakit aktore gehienek aurkakoa diotela baina nik nahiago dut, pertsonaia gehiago gozaten dudalako telebistan. Denborak aurrera egin ahala, pertsonaia garatzen eta aldatzen doa telesail batean, antzerki lanetan berriz, testu berarekin urte bete osoa egon zaitezke lanean».

**Xabier PERURENA**  
Leitzako aktorea  
D.NOTICIAS 2014.0120



«Gainera, sagardiak ditugunok ere horiek zaindu behar izaten ditugu. Oiartzunen badut hamar urteko sagardia, Lesakan hogeitau urte baino gehiagokoa eta orain hiru urte inguru landatutako hektarea eta erdi. Azken finean, urte guztiko lana da. Gainera, jatetxea ere urte osoan irekita egoten denez, urte guztiko lana izaten dugu».

**Juan Mari LOPEZ**  
Lesakako sagardogilea  
Naf. HITZA 2014.01.17

**11 galdera labur**

**Zein afizio dituzu?**

Ehizean pixka bat, mendian ibili eta tarteka juerga pixka bat.

**Eta nor dugu Unai Ordoki?**

Arantzako 27 urteko gazte bat.

**Inauteriak ala bestak dituzu nahiago?**

Dударик gabe inauteriak, egun horietako lagunarteak ez du parekorik.

**Zakuteneko gosariak, etxez-etxe-ko eskea, bertso afaria, gaueko besta... Zein duzu gustukoena?**

Denak gustukoak, baina ortzeguteneko gosaria eta etxez-etxe-ko bereziak dira.

**Inauterietan akordeoia jotzea tokatuz gero, zertan aldatzen dira inauteriak?**

Guttixeago edan beharra, bertzelako akordeoia desafintzen du eta behatzak trahatu [irriz].

**Zenbat urte Mozorro Zuri ateratzen eta noiz arte segitzeko asmoa?**

Aurten zortzigarrena. Berez ezkondu arte ibiltzen ahal da, legeak haus-

tea ere polita da [irriz].

**Astebururako gustuko plana?**

Erantzun zaila, lanaz aparteko plan guziak gustukoak baitituz. Lagunekin egon, neskaekin egon, mendira joan...

**Bestondoa pasatzeko sekretua?**

Guatzen sartu aitzinetik ederki gosaldu. Eta jeiki ondotik izerdia atera.

**Fabrikako lana ala baserriko lana duzu nahiago?**

Lan guziak txarrak dira, baina fabrikakoa nahiago.

**Zer du Azkilarrea auzoak bertze auzoek ez dutena?**

Paraje politak eta gaztetasuna.

**Arantzako parajerik gustukoena?**

Illurdiko kaxkoa, Zepuruko gaina eta Ekaitzako kaxkoa.



**Unai ORDOKI → Arantzako gaztea**



**zalain**  
JATETxea, RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**zalain**

**PREZIO EROAK!!!**

**Martzutzak-en**

- ♥ **ARROPA: 5€, 10€, 15€, 20€, 30€, ...**
- ♥ **ZILARRA eta BISUTERIA: -%30 eta -%50**
- ♥ **UNO de 50 Ciclon : -%30**

**Denda hustutzen dugu otsailaren 3tik 16ra**  
**DENBORALDIKO LIKIDAZIOA**

**Bidasoa, 12 BERA 948 631 425**

# ESKUALDEA

GIZARTEA → URTEKO LEHEN BI HILDAKOAK ZALAINEN

## N-121-A errepideak heriotzak eta kezka eragin ditu berriz ere

Burlatako bi anai hil ziren urtarrilaren 23an

### TTIPI-TTAPA

N-121-A errepidean izandako azken istripuak direla-eta, Bortzirietako udaletako ordezkariak behingoagatik neurri eraginkorrek har ditzan eskatu zioten Nafarroako Gobernuari «normaltasunetik urruti gertatzen diren istripu kopuru altu eta larri hauen aurrean». Errepide honetan azterketa bat gauzatzea eskatu

zuten, «jada identifikatuak dauden puntu arrisku-suetako lurzoruei eta istripuetan eragiten duten hainbat faktoreei dagokienez».

Istripuak eragiten dituzten faktoreen artean, kamioiek abiadura mugak ez errespetatzea dagoela adierazi ondotik, Nafarroako Gobernuak erantzunkizuna eta konpromezua hartzea eskatu zuten, «etorkizun hurbil batean, errepide honek eragiten dituen istripu larriak murriztu eta orokorrean errepidearen egoera eskualdeak merezi duen modura egokitzeko».



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortz herrietako alkate-zinegotzien agerraldia eta gizarte eragileek deitutako kontzentrazioa.

N-121-Ako Zalaingo zatian azterketa sakona egitea ere eskatu zuten, «ikusita lurzoruan begi bistakoa den arazo bat dagoela, maiz gertatzen diren istripu larriak horren adierazle dira. Abiadura mugak murriztu eta muga hauek errespetatzen direla

bermatu behar da».

Urtarrilaren 25ean, 300 bat lagun bildu ziren Zalaingo gasolindegian ondoan, gizarte eragile eta sindikatuak deitutako kontzentrazioan, *Istripu gehiagorik ez! N-121-A konponbideak orain!* goiburupean. «Bortzirietan bizi gare-

nok nekatuak gaude, nazkatuak, eta aldi berean beldurtuta gure errepide nagusian gertatzen denaren aitzinean» adierazi zuten.

Otsailaren 6an bilera bat egitekoa dute Baztan-Bidasoaldeko udal ordezkariak sustapen kontseilariarekin.



# Luahi

ileapaindegia ● estetika zentroa ●●

OTSAILAREN 8AN, 17:00 ETAN EGINGO DUGUN INAUGURAZIORA GONBIDATU NAHI ZAITUGU






EZTEGARA KALEA, 20. BERA . 948 625 742

 LUABI ILEAPAINDEGIA



GIZARTEA → IAZ BAINO %38 GEHIAGO

# 4,6 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak ahobatez

Lesakako udalarekin batera egin beharreko ur-hornidura proiektua izanen da inbertsio nagusia

## TTIPI-TTAPA

Udaleko Osoko Bilkurak aho batez onartu ditu 2014rako aurrekontuak, Aralar, Bildu, EAJ eta UPNko zinegotzien aldeko bozkekin. 4.661.409 eurokoa izanen da, aitzineko urtearekin alderatuta %38a gehiago.

Gastu arrunten atalean, 2.770.077 euro bideratuko dira, %4,33 gehiago. Nabarmentzekotan, mailegutuan, aurten 159.602 euroko gastua izanen dela, iaz baino 51.000 gutiago, bi mailegu ordaintzen bu-

katu baita, eta 2013an 180.000 euroko mailegua eskatu zen. Gainerako ataletan, ez dago aldaketa nabarmenik, eta oro har, zeuden horretan mantenduko dira ia sail guztiak.

Inbertsioen atala, berriz, hirukoiztu egin da, eta 1.772.952,12 eurokoa izanen da aurten. Diru horren ia zati osoa Berako eta Lesakako Udalek elkarrekin ur-hornidurarako landuko duten proiektura bideratuko da. Egitasmo osoaren aurrekontua 1.600.000 eurokoa da. Nafarroako Gobernua-ren %90eko dirulaguntza izanen du, gainerakoa ordaintzeko bi udalen artean adostu dute, Lesakako Udalaren ekarpena %3,5a izanen da eta Berako Udalak, berriz, proiektuaren %6,5 hartuko du bere gain. Proiektua erredaktatzeko eta obra zuzendaritzarako eskaintzak aurkeztu ziren eta ora-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Zahar Etxetik sagardotegira bixita egin dute aurten ere

San Jose Zahar Etxekoek aurten ere sagardotegira bixita egin dute, Ibardingo Mendiko sagardotegiko Ignacio Irazokik egindako gonbidapenari erantzunez. Urtarrilaren 21ean izan zuten bertako sukaldeko jaki goxoak dastatzeko eta nola ez, neurrian sagardoa txotxetik edateko aukera. San Jose Zahar Etxeko bixilagunek erakutsi dute adina ez dela oztopo mahai inguruan giro onean biltzeko eta Mendiko sagardotegiko zuzendaritza eta langileak eskertu nahi dituzte, aurten ere beraiekin izandako detailea.

in dokumentazioa aztertzen ari da Udala.

Gainerako inbertsioak kopurutan tikiak dira, Espainiako estatuko estabilitate legeak hala behartuta. Biomasa sortzeko 7.000 euro bideratuko dira; Ricardo Baroja eskolan egin beharreko lanetarako 32.000 euro bideratuko

dira (teilatu-hegalera eta leihoak aldatzeko); Berako ur-sareak hobetzeko 76.633,52 gorde dira; hilerrian nitxoak egiteko 20.000; organoaren interpretaziorako proiektu baterako 15.318,60; eta mendiko garbiketarako 9.000, bertzen artean.



## Ba al zenekien

Manttaiek antolatzen duen Berako Mendi Maratoi Erdia estatuko hamar mendi lasterketa onenen artean sartu duela Runner's aldizkari espezializatuak.

## FLASH

### Jabier Muguruza kontzertuan

Jabier Muguruza abeslari eta musikariak *Beste hoge* lan berria aurkeztuko du otsailaren 15ean, arratseko 10etatik aitzinera Kultur Etxean eskainiko duen kontzertuan.

### Jesusen Bihotza eta Toki Onako saskiak

Oraindik agertu gabe daude Jesusen Bihotzako ikasleek Lurraren Egunean eta Toki Onako Lesakako ferietan zozketatutako saskien jabeak. Jesusen Bihotzako saskia 0806 zenbakari dagokio eta otsail hondarrera arte izanen du jabeak eskatzeko epea. Bertzenaz, berriz ere inauterietan zozketatuko da eskolako ikasle eta gurasoen artean. Toki Onako saskia 1.067 zenbakari dagokio eta Etxalarren saskia omen da.

Otsailaren 6tik 15era LANERAKO ARROPA %20ko deskontuarekin

**Arturo**

ARROPAK ETXERAKO OSAGARRIAK  
LENTZERIA MERTZERIA

Aitzate, 20 BERA T. 948 630 136

**LABE ZAR**

Tel: 948 631 076 - BERA

**BILTEGIA 948 630 102**  
**FAUSTINO 647 810 152**  
Bidua, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

**F. LANCHAS**

Aku, bolakorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

# LESAKA

GIZARTEA → HARRIONDOA KULTUR ETXEAN

## ‘Gure esku dago’ dinamika aurkeztu dute

Martxoaren 10etik 16ra kultur ekitaldiak antolatuko dira ekainaren 8an Iruñea eta Durango lotuko dituen gizakatea girotzeko

**Aitor AROTZENA**

Harrera beroa izan zuen urtarrilaren 18an, Harriondoa Kultur Etxean egindako ‘Gure esku dago’ ekimenaren aurkezpenak. Parte hartzaile eta ikusleen artean 100 lagun inguru bildu ziren Euskal Herriak duen erabakitze-ko eskubidearen aldeko egitasmoaren aurkezpenean. Amaia Ene-terreagak eta Maite Bidarte aurkezleek hasi



ARGAZKIA: ISIDRO ETXEBERRIA

Aurkezpenean parte hartu zuten herritar batzuk, Kultur Etxearen atarian.

zuten ekitaldia. Segidan, Dani Oiarbidek, Idiazabaldik etorritako gonbidatuak hartu zuen hitza. Nazioen Mundua herri ekimeneko ordezkaria da bera eta beraien herriko esperientzia kontatu zien ikusleei. Ondoren, Tanti-rumairu euskal folklore taldeak, Tikitixa Taldearen laguntzaz, *Dantza Zati bat* ikuskizuna eskaini zuen.

‘Gure esku dago’ di-

namikak esku artean dituen ekimenen artean, ekainaren 8an Iruñea eta Durango batuko dituen gizakatea dago. Baztan-Malerreka-Bortzirriak eskualdeko biztanleek ere beraien lekua izanen dute, 108. km-an hain zuzen ere, Itza herrian. Kartera osatu ahal izateko 400 lagun bildu behar dira eskualdean. Herriko hainbat ostatu eta komertziotan izena emateko zerrendak jarri

dituzte. Gizakaterako motorrak berotzen has-teko, Eskuz Esku ekimena jarriko da martxan. Datozen egunetan hasi eta ekainera bitartean, Euskal Herri osoan zehar ibiliko da. Eskualdera lekukoa martxoaren 10ean iritsiko da eta 16ra bitarte, erabakitze-ko eskubidea ardatz hartuta kultur ekitaldi desberdinak antolatuko dira herritarren parte hartzearekin.

GIZARTEA → OTSAILAREN 15EAN

## Urteko batzarra deitu du Beti Gazte elkarteak

**A. AROTZENA**

Beti Gazte elkarteak urteko ohiko batzarre-rako deialdia egin du. Otsailaren 15ean, larunbat arratsaldeko 7:30-ean lehenbiziko deialdian eta 8:00etan bigarrenean egingen da elkartearen egoitzan. Gai ordenari dagokionez, jogan den urteko akta irakurri eta, bidezkoa bada onartu ondotik, iaz egindako ekitaldiak eta

kontuen balantzea aztertuko dute. Ondotik, aurten aurreikusitako dituzten ekitaldiak eta aurrekontua aurkeztuko dute. Kuoten eguneratzea, informazio ezberdinak eta zuzendaritza batzordearen berritzea ere landuko dituzte, eskari-galderen txandaren aitzinetik.

Batzarra bukatuta-koan lunch ttiki bat eskainiko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gaizka Sarasolaren antzerki-gidoi laburra saritu dute Bilbon

Gaizka Sarasola izan da euskarazko lanen atalean Cafe Bar Bilbao Antzerki gidoi laburren XI. lehiaketako sariaren irabazlea (1.400 euro), *Lurrazpikoak* lanarekin. Lehiaketara 16 lan euskaraz eta 27 gazteleraz aurkeztu ziren eta Mikel Martinez lehiaketaren sustatzaile eta aktorearen hitzetan, «kalitatea orokorrean oso ona izan da, batez ere euskarazko lanen atalean».





KULTURA → OTSAILAREN 14AN KULTUR ETXEAN

## Hitzaldi eta dokumental interesgarriak eskainiko dituzte

Energia berriztagarrien inguruan gazteek antolatua

### Irune eta Itsaso

Otsailaren 14an arratsaldeko 6:30ean hasita Salvados programako *Oligopoly* erreportajearen proiektzioa eta Goiener kooperatibako presidentearen eskutik

hitza dia izanen dira kultur etxean. Orain arte, argia konpainia elektriko handiek (Iberdrola, Endesa...) fakturatzea zen aukera bakarra. Goienerrek bertze aukera bat aurkezten digu; berdin ordainduz, kooperatibaren irabaziak iturri berriztagarrien bidez energia sortzeko erabiliko dituzte. Gazteek bilerara agertzeko deia egin diete herritar guztiei.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

### Bertze urte batez trikitilari ezagunak Etxalarren

Urtarrilaren 25ean egin zuten trikiti afaria Iriondoan. 30 lagunetik gora bildu ziren, hauen artean faborez CD bilduma grabatutako trikitilari ezagunak: Izer, Larrañaga, Elustondo, Olarte anaiak... Trikiti doinuek goizalderarte iraun zuten.

### Sagardotegia

Otsailaren 15ean irteera antolatu dute gazteek Hernaniko Iparragire Sagardotegira. Hila-

ren 7ra arte izanen da apuntatzeko epea Herriko ostatuan edo Eluttsan, 20 euro jarriz. Autobusa beteko ez balitz

ez litzateke irteerarik eginen (dirua itzuliko da). 13:00etan herritik abiatu eta goizeko 4:00etan izanen da itzulera.

urbicain s.l.

REPSOL

ERREGAI ONENAZ gain, orain

-6

10 pezeta

zentimo € litroko

Deskontu **ZUZENA** Berako gure **REPSOL** eta **PETRONOR** gasolindegietan

# BORTZIRIAK

GIZARTEA → OTSAILETIK AITZINERA

## Zaintzaileei zuzendutako tailerra eskainiko dute Gizarte Zerbitzuek

Ramoni Ordoki psikologoak koordinatuko du Arnasgunea zerbitzua

tenen zaintzaileei gune bat eskaini nahi diegu, zainketak dakartzan gorabeherak eta zalantzak bideratzeko» jakinarazi dute Mankomunitateak.

Zainketa mota hau, gehienetan familiak egiten du eta hagitz lotua da, 24 ordu, 365 egun eta isiltasun eta intimitatean egiten da. Jokin Apezetxeak, Mankomunitateko teknikariak aipatu digunez, «helduen zainketa, ez da haurrena bezala: ez dakizu noiz hasi daitekeen eta badakizu makurragora joan behar duela. Gogorra da». Zerbitzua, zain-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Jokin Apezetxea eta Arnasgunea zerbitzua koordinatuko duen Ramoni Ordoki psikologoa.

tzaile guztiei zuzendua dago, bai familiakoak izan, edo baita profesionalki horretan lan egiten dutenei ere. Gaiaz jarduteko, esparru berri hau sortu dute eta Arnasgunea izanen du izena.

Bi motetako helburuak izanen dituzte. Alde batetik, zaintzaileei entzutea: kezkak, emozionalki daramaten zama, kontziliatzeko zailtasunak... Eta bertze al-

detik, teknikoki informazioa eta irakastea: gaitasunaren garapenez informatu, mobilizatzeko teknikak erakutsi, baliabide eta laguntzetaz informatu.

Zerbitzua Ramoni Ordoki psikologoak koordinatu behar du. Otsailetik aitzinera astetero izanen da, 12:15etik 13:30k bitarte. Bilera lekuak txandakatuko dituzte, aste batean Beran eta hurrengoan Lesakan

elkartuz. Otsailaren 4an Beran izanen da eta 11n Lesakan. Beran Beralandetan bilduko dira eta Lesakan Herriko Etxeko bigarren solairuan, Batzorde Gelan.

Izen emateko, 948 635 036ra deitu edo [ssb@lesaka.net](mailto:ssb@lesaka.net) helbidera idatzi behar da. Zerbitzua doakoa da eta difusioa, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzua eta Osasun Etxetik egiten da.

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut  
Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

**ttipi-ttapa**  
info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

**MARITX**  
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak  
T. (0034) 636 617 450

**bixkiak**  
KIROL ETA MODAER  
BIRROPA DERRA  
**%10eko DESKONTUA**  
ttipi txartela

**ERROTAZAR**  
**harategia**  
Bertako produktuak  
Etegarra, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

**sarobe**  
gocologia olindegia  
Pr. de etegara 25 bajo 1948 630 899  
34700 berri(navarra) www.sarobe.net



**JIESU BIHIO ITZA**

**IKASITIKETA**

**AD B ereduak**  
eskeintzen dira

scorazonbera@planalfa.es  
**948 63 00 09**

**Aurre izenematearen epea otsailaren 20tik 26ra**



**PRIMI ostatua**  
 ongi pasa inauterian!  
 Tel. 948 634 052  
 Goiko karrika, 7 - ARANTZA



**GOIENBURU**  
 iturgintza  
 iturgintza, kalefakzioa eta gasa eguzki plakak eta biomasa egurrezko kalderak eta aerotermia  
 goienburu@gmail.com  
 Goienburu, 10 - 31790 ARANTZA - 600 902 723

*Ongi pasa inauterian!*

Zurgin lanak orokorrean  
**Luis Ibarra**  
 636 701 204  
 690 388 263  
 Luisibarra@50notmail.es  
 Sabatore karrika, 28 - ARANTZA

Armaruak  
 Leihoak  
 Ateak  
 Teilatu berriak  
 Parke flotantea  
 Tarrina  
 Teilatu zaharberntzeak  
 ongi pasa inauterian!



  
**ARANTZAKO UDALAK**  
 inauteri zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei



# ARANTZA



ARANTZAKO INAUTERIAK | Otsailaren 13, 14 eta 15ean

## EGITARAUA



**OTSAILAK 13, ortzeguna**  
**09:00etan** Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik** eskolako neska-mutikoei bisita egingen diete bizkarrekoak paratzeko. **Segidan** bi taldetan banatuta Mozorro Zuriak lau baserri auzoetara joan dira akordeoilarien laguntzarekin. **Egun guztia baserriz baserri** eskean pasako dute. **Arratsaldean** mozorro bes-ta eskolan. **Gauean** Mozorro Zurien afaria Primi ostatuan.



**OTSAILAK 14, ortzirala**  
**Goizean** Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik** herrian barna eskean ibiliko dira akordeoilarien laguntzarekin. **Eguerdie-arratsaldean** Pabloenean bazkalduko dute. **Egun osoan** eskolako neska-mutikoak ere baserriz baserri puxka-puxka ibiliko dira. **Gauean bertso afaria** Aterpean, Jexux Mari Irazu eta Jon Maia bertsolariekin. Ordu berean **Emakumeen afaria**. **Gauerditik aitzinera dantzaldia** Gorapean Agerralderekin.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXE  
 Ez da girorik faltako aurten ere Arantzán.

**OTSAILAK 15, larunbata**  
**Eguerdian** Mozorro Zurien **bazkaria** Bur-lada jatetxean. **Arratsaldean** herriko tti-

ki eta gaztetxo mozorro-tueten kalejira. **Ilunabarrean** Donato Larretxeak prestatutako herri kirol saioa eta rifen zozketa. **Gauean** Mozorro Zuriak Ekaitza Elkartearen afalduko dute. **Gauerditik aitzinera** Ai Ene musika taldearekin **dantzaldia** Gorapean.


**TOMAS TELLETXEA**  
 zaharberritzeak

Esperimentala handiz soluzioak metatuko erreforzoak egiten dira



Sabatore karrika, 22  
 31790 ARANTZA  
 Tel.: 606 348 355  
 teltcheatomas@gmail.com

*Ongi pasa inauterian!*

  
**aterpe**  
 albergea jabetzen ostatua

T. 948 634 179  
 ARANTZA  
 www.arantza.net  
 ongi pasa inauterian!



## IGANTZIKO INAUTERIAK | Otsailaren 21 eta 22an

### EGITARAUA

**OTSAILAK 21, ortzirala**  
**11:00 aldera** Mozorroak elkartu eta Berrizaun auzotik hasita, **etxez etxe eta baserriz baserri eskean** ibiliko dira gazteak. Herrira bueltan, bidegurutze aldeko etxeetara bisita egingen dute eta gero, Frain auzora joanen dira. **Eguerdian bazkaria** egingen dute. **Bazkalondoan** herrian eta Sarrolaeta Lasaga auzoetan ibiliko dira gazteak **eskean**. **Gauean afaria** egingen dute soziedadean.



**OTSAILAK 22, larunbata**  
**08:00etan** Mozorroak elkartu eta **Irisarri** auzora joanen dira gazteak. **11:00 aldera** herrira bueltatu eta **Unanu auzora** eta **Piedade gainera** joanen dira. **Arratsaldean haurrak kalejiran** ibiliko dira. Musika ere izanen da haurrentzako. **Ilunabarrean** etxez etxe eskean ibilita banatuko dituzten **boletoen zozketa** egingen dute gazteek. Bildotsa eta ardo lotea zozketatuko dituzte. **Gauean afaria** egingen dute La Villan.



**IGANTZIKO UDALAK**  
 inauteri zorionsuak opa dizkizue igantziar eta bisitari guztiei

Ongi pasa inauteriak!

## OKILA

*zurgindegia*

• Ternak, leihoak, ateak, eskailerak...  
 • Otrretako lanak orokorrean

*Lander Sosa • Mikel Arbaso*

948 637 240 • Piedade gaina zig • IGANTZI

## JOSE AGERRE

pinturak

**PINTURA LANAK OROKORREAN**

Kanpo eta barneko pintura  
 Barnizatze eta lakatzeak  
 Parket Flotatzaila jartzen dugu

610 221 528  
 BERRIZAUN

## TALOTXA

IGANTZI ERAIKUNTZAK,

Ongi pasa inauteriak!

Piedadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)  
 608 20 21 26 • 618 90 18 10

## LA VILLA

JATETXEA

Ortzirala, larunbata eta igandetan afariak

**ONGI PASA INAUTERIAKI**

K. Nagusia, 14 • IGANTZI (Nafarroa)  
 T. 948 637 290

**ilargi** okindegia

**APEZENA**

ongi pasa inauteriak!

Enkarguak 948 634 156 - ARANTZA



# ARANTZA

GIZARTEA → HERRITAR TALDE BATEN EKIMENA

## Bandera espainiarra udaletxeko balkoian paratzearen kontra sinadura bilketa egiten ari dira

Denda, ostatu, kooperatiba eta Herriko Etxean sina daiteke

oraindik ere badute aukera. Herriko dendetan, ostatuetan, Bortzak bat kooperatiban eta Herriko Etxean sinatzeko paperak jarriak dira.

Ahalik eta sinadura gehien bildu nahi dituzte, gero Udalaren aktetan jasota gelditu daitezkeen.

### Udal eraikinen garbiketa

Urtero bezala, udaletxeko eraikinak garbitzeko deialdi publikoa egin zuen Udalak. Eskola, medikuaren kontsulta, Herriko Etxea, Pelle Ttiki haureskola, eta baskula garbitzeko eskatutako baldintzak betetzen zi-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Arkupeak elkarteko bazkideen mus txapelketa

Arkupeak jubilatuen elkarateak mus txapelketa antolatu du aurten ere. Hondarribian jokatu da final handia, baina ordurako txartela eskuratzeko herriz herri txapelketak jokatu dira aitzinetik. Arkupeak-eko bazkide diren aranztarrek otsailaren 5ean egitekoa zuten txapelketa.

### Nerea ALTZURI

Ale honekin batera, herriko etxe guztietan, herritar talde baten idatzi bat hartu izanen duzue. Udaletxeko balkoian bandera espainiarra paratu izana gaitzesen da idatzi honetan eta hori horrela, sinadurak biltzen hasiak dira.

Joan den urte zahar egunean sinadura batzuk bildu zituzten, baina 16 urtetik goitiko guztiek


tuzten hiru herritarrek urtarilaren 15ean azterketa egin zuten. Euskara-kro frogara, ortografia, aritmetika eta garbitasunarekin loturiko hainbat galderaz osaturiko azterketa egin zuten. Belen Mutuberria Iturria eta Loli Iraola Maritorenak emaitzik hoberean atera zituzten eta bi horiek herriko langile berriak dira. Egunean bakoitza hiru orduko lanaldian (astean 15 ordu) ariko da.

### OSPAKIZUNAK

### Inauteriak inauteriak!

### Nerea ALTZURI

Herritarrentzat eta ingurukoentzat erakargarriak izaten dira inauteri egunak. Aurtengoak otsailaren 13, 14 eta 15ean izanen dira eta beraz, aski gutti gelditzen zaizue mozerroa prestatzeko. Mozerro Zurien ardura izaten da inauterien antolaketa baina erran beharrik ez dago, herritarren borondate, harrera eta eskupekoari esker aitzin egiten zaiela egun hauetako ekitaldien gastu nagusiei. Aurten 25 bat lagun ibiliko dira Mozerro Zurien taldean akordeoilarien laguntzarekin. Inauterietako xehetasunak 16. orrialdean dituzue.

  
**USOA**  
Nekazar  
kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da  
Kalefakzioa eta ibigailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

**ERREKALDE**  
PLATE KOPURATUAK  
PATEAK  
KANTAK

TFNOA: 948 630 259 • ZERA

Egin zaitez  
**ttipi-ttapa**  
harpidedun

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Ekialdeko Euzkadi eta Madrilak 34€
- Amerika eta Australia 124€
- Iparraldeko Euzkadi 59,50€
- Leitza 17€


(0034) 948 63 54 58  
www.ttipi.net

**XAGU**  
LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA:  
948 638 232

Konkaintako bidea, 7  
31770 LESAKA

*zaitoz denak herri ezagutzera!*

- LIBURUDENDA
- KOLEKTIBO FOTOKOPIAK
- USBRIK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOAK**

**Fernando Orset Mauleon** arkitekтура  
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007



# Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoizko ontziak, papera,  
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,  
latak, brikak.



Beirazko botilak,  
flaskoak, poteak.

## Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertзера, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



## KULTURA

BERTSOLARITZA → 60 BERTSOLARI PLAZARA

# Asteburu honetan abiatuko da Bardoak 2014 bertso ekimena

Lesakako frontoian jokatu da finala apirilaren 12an

### TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan abiatuko da Bardoak 2014 Nafarroako taldekako bertso ekimena. Guzira 16 taldek hartuko dute parte eta 60 bertsolari aterako dira plazara, inoizko kopururik handiena. Saio kopurua ere ez da nolana hikoia, bi hilabetetan 23 saio izanen baititu taldekako txapelketak.

Lehen fasea otsailaren 7tik otsailaren 23ra

jokatuko da, 16 saioekin. Hamasei taldeak borts ligaxkatan banatuta egonen dira eta ligaxka bakoitzeko talde bana pasako da bigarren fasera. Martxoan egingen den bigarren fase honetan sei saio egingen dira eta bertatik, Lesakan apirilaren 12an jokatu den finalerako hiru talde sailkatuko dira. Arratsaldeko saioa izango bada ere, egun osoko besta eguna bihurtuko da. Azken urteotan Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala bertsolaritzaren eta euskal kulturaren ezinbesteko hitzordu bilakatu da, eta Bardoak 2014ko final honek ere



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere giro bikaina espero dute Bardoak bertso ekimeneko bigarren edizioan.

lehiak harago dagoen bertsolaritzaren festa handia izaten segitua ni du.

### Lehen saioak

Gure inguruan egin behar diren saioei dagokienez, otsailaren 7an Lesakako Lindurren bordan, 19:30ean, *Zortziko haundiena* (Eneko Fernandez, Iban Garro, Josu Sanjurjo, Maddalen Lopez) – *Xirristi Drimtim* (Martin Azpiroz, Xabier Zarraluki, Mikel Xabier Juaniz, Migel Anjel Ortiz de Guzman).

Zubietako estalpean, 20:00etan, *Etxeko kontuk* (Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaia, Amaia Elizagoien) – *Mirristi Drimtim* (Xabier Terreros, Unai Uberetagoena, Asier Saragueta).

Erratzuko Zubipunta ostatuan, 21:00etan, *Lepatanatuek 2, txipitziroien itzulera* (Kotte Plaza, Jon Barberena, Oier Amiano, Xabier Maia) – *Barardoak* (Mikel Lasarte, Ainara Ilegi, Sarai Robles, Manex Mailharin).

Otsailaren 14an, Be-

rako gaztetxean, 21:00etan, *Bordboiak* (Julen Zelaieta, Patxi Castillo, Aitor Elexpuru, Jokin Pinatxo) – *Bertze maldiakoak* (Ainhoa Aranburu, Aimar Karrika, Oscar Sanz de Acedo)

Otsailaren 15ean, Leitzako Aurreran, 18:00etan, *Harrapazank* (Migel Mari Elozegi Luze, Iñigo Ibarra, Joanes Illarregi) – *Miluzeko barañetak* (Ander Baiano, Ander Perez, Mintxo Astiz, Pablo Perez, Edurne Errea, Iker Mundiñano).

## BERTIZ

GIZARTEA → LANDA ETXEETAKO JABEAK KONTENT

# 2013 urteko balantze baikorra egin du Hiruak Bat elkarteak

Urte hasiera kaxkarra orekatu zuen bigarren seihilekoak

### TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoaldeko landa etxe gehienak elkartzen dituen Hiruak Bat elkarteak pasa den

2013. urtearen balantzio positiboa egiten du. Estatistika ofizialek Nafarroako ipar-mendebaldeko landa turismoaren jautsiera islatzen badute ere, bazkideen ustez, 2012ko okupazioaren jautsiera latzaren ondoren, 2013. urtean mantendu egin da edo igotzea itiki bat ere nabaritu da. Gehiago zehazteko,

urteko lehen seihiletekoa ez zen ona izan, baina bigarrenak orekatu egin zuen urtea.

Elkarteko erreserba zentralerako datuen arabera, landa etxe osoek uztailaren %71ko okupazioa izan zuten, abuztuaren %92koa eta iraileko lehenengo hamabostaldian %27koa eta gelakako landa etxeei da-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mikelestonea landa etxea, Etxalarren.

gokienez, uztailaren %56-ko okupazioa izan zuten, abuztuaren %87koa eta iraileko lehenengo hamabostaldian %3koa. Gainontzekoan, maiatzeko okupazioa baxua eta urriko igotzea nabarmentzen dira.

Urtaroen arteko desberdintasuna hagitzen izaten segitua

zuten du, izan ere erreberben %85 udan (eta gero eta gehiago abuztuaren), Aste Santuan eta zubietan pilatzen baita.

Otsailaren 4an, oraindik Hiruak Bat elkarteak bazkide ez diren landa etxeetako jabeekin informazio bilera deitua zuten Bertizen.





# DONEZTEBE

GIZARTEA → OSASUNA

## Tabakoa uzteko lan-taldea osatu da Doneztebeko Osasun Zentroan

Interesatuak badute oraindik izen emateko aukera, medikuari, erizainari edo Osasun Etxeko gizarte langileari galdetuta

### TTIPI-TTAPA

*Hautsi tabakoarekin duzun lotura* izenburupean, tabakoa uzteko tailerra egingen da Doneztebeko Osasun Zentroan otsailean. Interesatuak oraindik badute izen emateko aukera, medikuari, erizainari edo osasun etxeko gizarte langileari galdetuta.

Tabakoa uzteko tailerreko taldearen saioak otsailaren 17, 20, 24 eta 27an eta martxoan

ren 3 eta 6an egingen dira, 12:30etik 14:30era.

### Bertso-bazkaria Ekaitzan

Ametz Arzallus Euskal Herriko txapeldun berria eta Jon Maia ariko dira otsailaren 22an, 14:30etik aitzinera Doneztebeko Ekaitza ostauan antolatu den bertso bazkarian. Bertso ederrak aditzeaz gain, menu goxoa ere izanen dute bazkarira hurbiltzen direnek: banabarrak, txuleta, postrea, kafea eta kopa. Txartelak salgai daude Ekaitzan, 35 euroren truke.

### Zinema

Zinemak segitzen du bere saioekin. Otsailaren 16an, *Aviones* filma eskainiko dute 16:30ean eta *Los juegos del hambre* 18:30ean. Martxoaren 2ko filmetako bat *Zipi Zape* da.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

### Errekako senior eta mutiko infantilak txapeldun izateko lehian

Orokorrean, Errekako eskubaloitza talde guztiak lan ederra egiten ari da, baina mutiko infantilek (argazkian) eta senior mailako mutilek, Nafarroako txapeldun izateko aukera ematen duen fasean sartuak dira. Ttikienak, liga txapelketa irabazten saiatuko dira Nafarroako 6 talde hobereenen artean. Seniorrak ere berdin. Duda-mudaz betetako hasiera baten ondotik, Iban Ezkurak zuzentzen duen taldeak sei garaipen segidan lortu ditu eta berriz ere txapelketa irabazteko lehian sartu da.

### KIROLA

Oraingoz 23 kirolari federatu eta 16 ez federatu dituen Triatloi sekzioa aurkeztu du Errekak

### TTIPI-TTAPA

Igande honetan aurkeztu dute Kasino elkartearen Erreka elkartearen triatloi sekzio berria. Gorka Bidegainen taldekideak aipatu digunez, «23 kirolari federatu eta bertz 16 ez federatu izanen gara taldean. Taldekideak Sunbilla, Elizondo, Arizkun, Lekaroz, Mugairi, Iruñea, Elgorriaga eta Doneztebekoak gara... Hiru emakume ere baditugu taldean».

Orokorrean taldearen helburuak Euskadiko eta Nafarroako probetan

parte hartzea izanen da, duatloi eta triatloietan... «Taldea berria denez, hori izanen da helburua, parte hartze horiekin taldea beste urteetarako sendotzea» dio Bidegainen.

Kirolari bakoitzak bere helburu partikularrak ere baditu, «hala batzuk duatloietan parte hartzea dute helburu, bertz batzuk triatloi olinpikoetan, eta bakarren batek, iron man batean...». Horiei guztiei eta ondotik etorri nahi dutenei babes ematen die Errekako Triatloi sekzioak.

## APARAN, S.A.

**ERIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



HOSTALA BITT ZENTRUA OSATUA ERRETESIA

ENTSALADAK	TXULETOIA ERRETA
PASTA FRESKOA	TXERRIKUMEA ERRETA
SASOIKO BARAZKIAK	BAKAILAQA
PLATER KONBINATUAK	ETXEKO POSTREAK

**Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...**

T. 948 450 028    DONEZTEBE    [www.arretzia.com](http://www.arretzia.com)



# URROZ

# ELGORRIAGA

KIROLA → ILBELTZAREN 26AN

## Euskolabel txapelketako bi saio jokatu ziren

Urrezko mailakoan Atutxa eta Mugertza nagusitu ziren

lerako sailkatu ziren, Migel Mindegia eta Juan Rodriguez-i irabazita.

Atsaldez berriz, urrezko mailan, Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertzak 2 puntu lortu zituzten eta Ander Erasun eta Jon Rekondok bakarra. Hurrengo saioa Leitzan izanen dute eta aitzinera segitzekotan, irabazi beharra dute Aurtiz eta Leitzakoak.

Ikusle mordoxka ere agertu zen, batez ere arratsaldez, behar bada maila haundixeagoko saioa ikusi asmoz.

**Joseba URROTZ**

Ilbeltzaren 26an jokatu zen Eusko Label binakako aizkora txapelketaren 4. jardunaldia, bai zilarrezko mailan eta baita urrezkoan ere.

Goizez, zilarrezkoen txanda izan zen. Daniel eta Iker Vicente fina-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Mus txapelketako txapelkun eta azpitxapelkunak, sari banaketaren ondotik.

GIZARTEA → ZORTZI BIKOTE LEHIAN

## Xabier Olazar eta Endika Larralde nagusi inautetako mus txapelketan

Finalean Oihana Migeltorena eta Ainhoa Irisarri irabazi zieten

**Mattin LARRALDE**

Urtarrilaren 25ean jokatu zen inauterietako mus txapelketa. Bertara 8 bikote hurbildu ziren. Finalean, Xabier Olazar eta Endika Larralde eta Oihana Mi-

geltorena eta Ainhoa Irisarri ailegatu ziren eta azkenean mutilak nagusitu ziren. Irabazleek bi gazta eta bi botil ardo etxeratu zituzten eta eta azpitxapelkunak bi botil ardo.



**ORBELA**  
BEINTZAKO OSTATUA

Idoa - Mikel  
Tel: 948 450 014  
BEINTZA-LABAREN  
www.orbela-beintza.com

**ola**  
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARAIATREKIA**

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

Tel: 943 623 130

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

# ITUREN

OSPAKIZUNAK → INAUTERIEI ERREPASOA

## Lurrak eta urak astindu dira aurtengo inauteetan

Hiru herrietako 56 joaldun bildu ziren Iturenen astelehenean

### Arkaitz MINDEGIA

Inauteri ofizialak ailegatzeko asko faltan den arren, gure herrian inauteriak ospatu ditugu eta ongi pasa izanaren arrastoa gibelean utzi dute aurtengoek ere. Argazkiek eta kalean sortutako giroa dira umore on horren adierazle. Aste betez, askorako eman dute aurtengoek ere: herritarrek, antolatzaileek, eskolako haur, guraso eta irakasleek gozatu ederra hartu dute.

### TTIKIENAK ERE INAUTERIZALE

Pulunpa eskolakoek ostiralean ospatu zuten inaute eguna. Eguerdian denak bazkari berezi batean elkartu eta ondorengo mozorro, joaldun eta musikaren txanda izan zen. Hotza eta euriari ere ederki egin zioten aurre txokolate berearekin.

### ITURENEN EGUN HANDIA

Ondorengo eguntan eguraldia ez zen ederrena izan, baina joaldun, mozorro, karroza eta herritarrek ez ziren aterpean geratu. Sekulako joaldun koadri-la bildu zen, astelehen

eta asteartean: astelehenean dena 56 joaldun elkartu ziren Iturenen, 22 Iturengoak, 18 Aurtizkoak eta 16 Zubietakoak. Adin guzietakoak, neska eta mutil, joareak dotore jo zituzten, nahiz eta eurien eraginez, soinua ez zela ohikoa izan azaldu zuten aunitzek. Haiekin batera, Iturengo eta Aurtizko hartzak eta kontzaileak joan ziren, bidea garbitu eta irekitzen eta jendeari sustoren bat edo beste emanaz.

### KARROZA ETA MOZORRO AUNITZ

Karrozak ere ez ziren falta izan. Zubietatik hiru etorri ziren, tartean hain estimatua den talogileen karroza. Aurtiztik berriz Aurtizko baserritarrek inautitan ere labin, Aurtizko gadafitarrak Guantanamo, Nafarroako medikuntzari kritika... Iturenen ere baziren Mendaurko bizilagunak....hainbat eta hainbat mozorro eta musikari kuadrilak. Bitxikeria bezala erran, mozorroetako batzuk abortatzera atzerrira joan behar izan zuten emakume haurdunetz jantzi zirela. Eta guzti hauei bazterretik begira ere jende dexente bildu zen plazan. Asteartean, berriz, zubietarrei egin zitzaizkien bixita eta bezperako bestak segida izan zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bustitzeari beldurrik ez eta besta giroa nagusi

Euriak ez zituen izutu herritar eta bisitariak eta primeran ederrean ospatu zituzten inauteriak.

### ASTEAZKENEAN HERRIAN BESTA

Bi egun haundien ondorengo herrian bertan bizitu ziren ondoko egunak. Asteazkenean puxka biltzen ibili ziren herritarrek eta Aurtizko neskek joariak jarri eta azken urteetan indartzen ari den ohiturarekin segiz, herrian barna ibili eta gero Ituren eta

Zubietara egin zuten bisita.

### ASTEBURUKO EKITALDIAK

Inauteriei bukaera emateko, Iturenen kontuen eguna izan zuten larunbatean. Dantzariak, herritarren arteko proba konbinatua, bertso bazkaria eta nola ez parranda. Aurtitzen be-

rriz, larunbat gauean zehar afariarekin elkarrekin topera bete zen eta juergak goizalderarte iraun zuen. Igandean kontuak pagatu ondorengo, bazkariarekin bukaera eman zitzaizkien aurtengo inauteei. Orain 2015ko inauterien zain geratzen gara, hori bai, bitartean ondoko herriko inauterietaz gozatuz.



# ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → EGURALDIAK EZ ZUEN LAGUNDU

## Partehartze handia eta giro ederra izan dira inauterietan

Gazteen elkartean 44 lagun aritu dira aurten antolaketan

### Fermin ETXEKOLONEA

Inauterietan eguraldi txarra baina giro ona izan dugu aurten. Partehartze handia izan zen aipagarriena. Sukaldariek lan sorra egin zuten eta eskerrak eman Patxiku Mitxelena, Marijose Loiarte eta Angelita Otxandorenari. Asteartean, Maider Irazoki doneztebarra izan zuten laguntzaile.

Gazteen elkartean inauteak prestatzen 44 lagun aritu ziren aurten. Antolakuntzan sei lagun gehiago izan dira, beraz, eta horrek ospakizuna indartu egin du. Astelehenean lau karrroza joan ziren Iturenera eta asteartean herri-an gehiago ere atera ziren. Lorentzo Santestebanek inauterietan duen grina ere azpimarratu behar da. Zuhaitza altxatu zuen asteartean argitzerako. Lorentxo Santesteban izenkidea ere sukaldari eta launtzaile aritu da, erosketak egiten eta zerbitzu falta denean eskua



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Giro bikainean joan dira aurten ere inauterietan.

botatzeko prest. Gazteek omenalditxoak egin zituzten, bere erara karrroza prestatuz, bere lana eskertzeko moduan.

Mari Juli Loiartek bi saioak egin zituzten joareekin. 47 urterekin parte hartu du eta Iturenerakoan Ane Antso alabarekin joan zen. Aste-

artean emakume gehiago izan ziren herrian, baita haurrak ere, inauterietan segida badutela erakutsiz.

### Bardoak

Bardoak 2014 bertso ekimeneko saioa egingen da otsailaren 7an, ostiral arratseko

8etan estalpean. Bertso-merendua egingen da eta ondotik saioa eskainiko dute *Etxeko kontutuk* (Iker Gorosterrazu, Egoitz Gorosterrazu eta Amaia Elizagoien) eta *Mirristi Drintim* (Xabier Terreros, Unai Uberetagoena eta Asier Saraqueta) taldeek.

## BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → ILBELTZAREN 25EAN BEINTZAN

## Aspaldiko kontuak kontari bildu dira

Garai bateko ohiturak ikasi zituzten ikasleek eskolako lan baterako

### Arantxa ITURRALDE

Ilbeltzaren 25ean, Beintzako ostatuan ma-

hai inguruan bildu ziren eskolako hainbat haur eta herriko heldu batzuk. Aitzakia bazuten bilera honetarako, aspaldiko kontu zaharrak kontatzen aritu baitziren gaztetxoek.

Besteak beste, garai bateko ohituretz aritu ziren: lana, familia, herriko bitzita, besta os-



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Neska-mutikoez gustora aditu zituzten garai bateko kontuak Beintzako Ostatuan.

pakizunak... Haurrak gai honi buruzko lantxo bat egiteko asmotan dabilta eskolan eta hori dela eta, garai batean

nola bizi ziren herritarrek jakin nahi zuten.

### Moto-krosa

Aldizkari honetako kirol

orrialdeetan ikusiko duzue, Juan Mari Goñi Espainiako moto-kros txapelketan aritzekoa da aurten.

# DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 7TIK 9RA

## Asteburu honetan izanen dira ihauteriak

### Izaskun GOÑI TELLETXEA

Otsailaren 7,8 eta 9an, izango dira aurten-goan ihauteriak.

Ostiral eguerdian Herriko Ostatuan bazkaria izanen da, eta bazkal ondotik, Aurtizko Oihana Mindegia eta Oihana Elizalderen laguntzaz, trikitixa eta panderetarekin, auzo batzuetan barrena ibiliko dira gazteak. Ondotik, Herriko Ostatuan afalduko dute.

Larunbat goizean goizetik hasita, gosari eder baten laguntzaz segituko dute ihauteriek. Itsaso eta Irune trikitilari eta panderojoleak lagun, auzoz auzoko bideari ekinen diote. Bazkal ondotik, berriz

ere etxez etxe ibiliko dira eta gauean afari eder-rra izanen da herriko ostatuan. Ondoren, gaupasa izanen da Modesto akordeolariarekin.

Igandean, ihauteriak ongi bukatzeko, herriko ostatuan bazkaria izanen da eta arratsaldean txokolatada.

### Kultur ekimena edo kultur taldea

Urtarrilaren 18an batzar irekia izan zen (18 pertsona elkartu ziren), herriko kultur eta kirol jardueren inguruan hausnartzeko. Helburua da, jardueren antolaketan herritarren parte hartzea bultzatzea, kultur



ARGAZKIAK: IZASKUN G.T.

Aurten ere umorea hedatuko dute gazteek etxez etxe.

eskaintzak bermatzeko eta ahal bada zabaltzeko. Aunitz dira herrian egiten diren jarduerak, baina pertsona gutxi batzuen artean antolatzen dira. Bertzalde, antolatzaileen artean ez dago koordinaziorik ezta kultur ekitaldien programazio bateratu-

rik ere, inertziaz funtzionatzen baita. Hau guztia bideratzeko modua badagoela pentsatuz eta norabide horretan sakontzeko urtarrilaren 31n bigarren batzar irekia deituta zegoen. Kultur batzorde bat antolatzea edo bertze formularen bat erabiltzea

erabaki behar zen eta aurrerantzean emanen diren urratsak eta zenbat pertsona prest agertzen diren proiektua aurrera eramateko. Bigarren bileran osatuko da herriko kultur batzordea, horretarako borondatea erakusten duten pertsonekin.



GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -

- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



GIZARTEA → ABIAN DA AURTENGO IKASTURTEA

## Otsailetik aitzinera, ekintza ugari eskura

Hasteko Elkartearen herrietako bestak

### Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak Elkarteko aurtengo ekintzak otsailean hasiko dira herriz herri ospatuko diren Arkupeak Elkartekoen jaiekin. Urteroko ohiturari eutsiz, hildako bazkideen omenezko meza eta bazkaria izanen dira eta horren ondotik, musean aritzeko aukera izango dute eskualdeko musulari trebeek txapelketa antolatuta baita. Herriz herri irabazten duten bikoteek, Hondarribian jokatu den finalean aritzeko txartela lortuko dute. Aipatu, herri batzuetan, Leitzan eta Elizondon adibidez, Arkupeak Elkartearen Eguna ospatu aurretik jokatzeko direla mus txapelketako partidak.

### IKASTARO ETA HITZALDIAK

Pasa den urteko ikastaroak mantendu eta berriak eskainiko dira aurtén. Izen emateko epea urtarrilaren 31n amaitu zen eta segidan bilerak egingo dira. Aldez aurretik jakinaraziko da zein egun, ordu eta lekutan izanen diren bilera hauek.

Pentsioen inguruan han hemenka zabaldu diren berriek kezka sortzen dutela ikusita, gaiaren inguruko hitzaldiak antolatu dira. Patxi Urrutia aditua izanen da hizlaria. Lehenengo saioa otsailaren 6an izanen da Arkupeak Elkartekoen Doneztebeko



egoitzan, arratsaldeko 6etatik aurrera. Hurrengo berriz, otsailaren 13an Leitzako zinean izanen da 18:00etan. Martxoan Elizondo eta Beran ere eskainiko dira hitzaldi hauek.

### MENDI IRTEERAK

Aurtengo lehenengo mendi irteera, otsailaren 26an izango da. Ezkurra inguruko paisaiak ezagutzeko aukera izanen dute bazkideek lau ordu eta erdiko ibilbidean. Parte hartu nahi dutenek, 948 450878 edo 646548610 telefonora deitu beharko du-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA.

Goian, Arkupeak elkartekoen iaz Igantzín egin zuten bazkariko argazkia. Beheko argazkian, sendabelarren ikastaroan parte hartu duten emakumeak.

te. Goizeko 8:30ean elkartuko dira mendizaleak Barranka ostatuan eta bertan bukatuko dute ibilbidea. Babarrun platerkada bikain bat esperoan izanen dute

sakramentu eta guzti. Hurrengo aleetan, San Donato, Txindoki, Gorbela, Donejakue Bidea eta Pirinioetara egitekoak diren irteeren berri izanen duzue.

**Javier Manterola**  
Tehniko instalatzailea  
Iturgintza - gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**ANTZUZELAI**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com  
Antzinaldeak, angeluak, oma antzinoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tuminiak, entzizak, moldurak, zokoak, hilarriak, marrazkiak

Arkupeak eguna	
Otsailak 1	Almandoz
Otsailak 2	Etxalar
Otsailak 5	Arantza
Otsailak 7	Igantzi
Otsailak 9	Eratsun
Otsailak 13	Elizondo Arizkun
Otsailak 14	Doneztebe
Otsailak 16	Bera Ezkurra Leitza
Otsailak 23	Sunbilla

948 631 218  
Kanttonberrí 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
**KATEA-BIKE**

**elika**  
Dietetika... elikadura  
ttipi txartela  
%5eko DESKONTUA kontsultan

## EZKURRA

GIZARTEA → URTARRILAREN 19AN

# Barrankako Feliri adio

83 urterekin hil zen ostatuko sukaldari fina

**Fernando ETXEBERRIA**

Urtarrilaren 19an Feli Gartziaarena Baraibar hil zen 83 urterekin, Virgen del Camino ospitalean, 18 egunez bertan egon ondoren. Herrian ezaguna eta estimatua zen bere izaeragatik eta baita sukaldean zuen trebeziagatik ere. 1930eko martxoaren 7an jaio zen Txurdinea Bordan. Hamaika anai-arrebetatik zazpigarrena, gazte garaian Donostian ibili zen sukaldean eta josten ikasten.

Pantxito Gorostiagarekin ezkondu zen eta Barranka ostatuan bizitzaren jarri ziren familieren tradizioarekin segiz. Emakume langilea oso, sukaldean edo baratzean landare edo uzta zaintzen egon ohi zen.

Hiru seme izan zituen, hiru biloba eta birloba bat ezagutzeko zortea ere izan zuen Felik. Hilaren 21ean ospatu ziren bere aldeko hileta elizkizunak eta jende ugari izan zen bertan. Lero hauen bitartez doluminak eman nahi dizkiet bere familiako kideei eta gogorarazi ama galdu izanagatik mina sentitu arren, harro eta



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Feli bere hiru hilobekin batera.

pozik egoteko arrazoiak badituztela, azken unera arte bere alboan izan direlako, amari maitasun eta babesa adieraziz. Goian bego.

### INAUTERIAK

Urtarrilaren 17, 18 eta 19an Eratsunen ihauterriak ospatu ziren. Musikariek lagundutako kalejira, baserrietako eskeak eta mahai inguruko

kontu eta kantuak izan zituzten gure bizilagunek. Ezkurran berriz, seguruenik oraindik zehaztu gabe dagoen as-tebururen batean ospatuko ditugu. Garai batean Erregeen ondoren, asteko azken 3 egunean ospatzen ziren eta diotenez, duela 50 urte ospakizun bikoitza ere izan zen. Herriko gazteak diru-laguntza eske

joan eta Udalarari gehiegizkoa iruditu zitzaion eskatutako laguntza. Ihauteririk ez zutela antolatutako erabaki zuten orduan eta udalak bere kabuz antolatu zituen. Gazteak orduan haserre, beren aldetik aste bete iraun zuten ihauterriak ospatzea erabaki zuten. Baten faltan, bi eta luzeagoak izan zituzten azkenean.

## SALDIAS

GIZARTEA → TANTAKA HELDU DIRA JAIOBERRIAK

# Bizilagun kopuruan ez da aumentu handirik gurean

**Markel LIZASOAIN**

Atzeneko aldian, Angel Perez zenaren ipi-apak aipatu genituen, eta halabeharra, Carmen Perez Galilea arreba hil da aurre horretan, ilbeltzaren 21ean. Doluminak familiakoei. Herri hauek husten ari direnaren berriak eman zituzten Ttipi-Ttapan, eta egia da, Saldias ez du aumentu handirik izan aspaldikoan, nahiz eta heldu diren tantaka jaioberriak. Nolanahi ere, hobe al

da Saran eta Senperen gertatzen ari dena, kanpotik hainbeste jende etorrita? Eta nola esplikatuko ondoko herrietan, Urdazubini eta Zugarramurdin, gertatzen dena? Egundaino jende bera da Senperekoa eta Zugarramurdikoa, anai-arrebak, eta bata jendez leher eta bestea bere jendeari ezin eutsita. Horretan ageri da alde batekoak Parisera eta beste aldekoak Madrilera begira gauzkatela.

### Inauterietan zer edo zer egin nahian

laz, inautetikiak izan du genituen, puska biltzerik gabekoak, eta aurten zer edo zer egin nahi dutenaren soinuk dabilta. Ea zerbait moldatzen duten, ohitura hori ere alde batera uztea seinale makurra litzateke eta. Inaute sasoiaren denez, 1970ekoak ekarri nahi nituzke gogora. Hona nolaidatzi zuen don Tomas zenak: "Urtero bezala, aurten ere, gure erriko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Saldiasko inauterriak, duela lau urte.

mutillak egin dituzte bere pestak. Ilbeltzaren 11'garrenean asi zituzten eta 15'garrenean bukatu. Otordua eta dantza izan zituzten beuen eginkizun nagusienak. Beste jostaketarik etzuten antolatu. Aurreko urtietan aizkora apustutxo bat iza-

tera saiatu dira. Elkarrekin konpondu dirala entzun dugu. Berri onek asko poztu gaitu. Aserkeriak inun ez du gauz onik. Beren onerako, urtero bezala, Meza bat aterazuten. Igandean eman giñuen, kanpora bearrrak giñalako, astelenian".



GIZARTEA → ILBELTZAREN 19AN LEKUNBERRIN

# Plazaolaren mendeurrena ospatu zuen Partzuergoak

Udalarekin batera, beste 20 bat kide ditu herrian

**JM BARRIOLA**

Plazaola Turismo Partzuergoan daude Leitza eta Areso, Lekunberri, Imotz eta Larrango Udalak eta artisau eta ostalaritzako bazkideek ere osatzen dute. Gainera, Araitz, Basaburua, Ultzama eta Sakanako bazkideek osatzen dute partzuergoa. Guztira 100 kide inguru. Udalaz aparte Leitza 20 bat kide daude. Ostalaritzakoak 5:3 hotel, 2 jatetxe (gehi beste 2 hotel, Iruso eta Musunzar); Landa etxeak 6; Komertzioak 3 (Saralegi seguruak, Aritzte-la, Maimur); Tabernak 2 (Gaztañaga eta Txoko); Aktibitateak 2 (Peru hari, Arro baserria).

Ilbeltzaren 19an Lekunberriko geltokian bildu ziren Partzuergoko ordezkariak gain trenbidea pasatzen zen herrietako ordezkariak ere, lehen bidaiaren mendeurrena ospatzeko. Gipuzkoako zatiko alkateak ere bertan ziren eta Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzatik ere ordezkariak bildu ziren. Nafarroako Gobernutik Turismo Zuzendari Nagusia Carlos Erce eta

alkate eta bazkide ugari ere baziren.

Izan ere, hamar urte lehenagotik Leitzarango Bizkotz ingurutik Andoainera minerala garraiatzen baldin bazuen ere, jendearekin lehen bidaia 1914ko urtarrilaren 25ean egin zuen Plazaolak.

Orain lanean jarraituko dute Partzuergoan maiatzaren 4an naturbideen egunean besta herrikoia antolatzeko.



ARGAZKIA: E. BELAUNTZARAN

Agintariak ehungarren urteurreneko ospakizunean, Lekunberriko estazioan.

Natur bidearen zabal-kuntzan Iruña eta Donostia lotuz, tartean gelditzen diren puntu guztiak berreskuratu, txukundu, eta indartzen joateko asmoan dira, gure inguruaren erakusleio ederra bihurtuz, bertakoentzat eta bisitariarentzat.



## Ba al zenekien

Urtarrilaren 25ean Hendaian jokatu zen 2013. urteari zegokion Euskadiak ingude altxatze txapelketan Josetxo Urrutia azpitxapeladun suertatu zela, 86 jasoaldirekin.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Euri asko egin du 2013an

Aurten euritsu hasi zaigu eguraldia, baina lehengo urteko marka gainditzen ez da erreza suertatuko. Luisenborda ondoan herriko neurrigailuan 3.472 litro jaso ziren 2013ko urte osoan botatako eurien ondorioz. Normalean urte euritsu batean 2.400 litro inguru jaso izan dira, beraz izugarria izan zen lehengo urtean emandako emaitzak.



ARGAZKIAK: M. ESNAOLA

## Giro ederrean joan dira ihoterik

Ilbeltzaren azken larunbatarekin hasi ziren herriko pesta txikiak. Eguraldiak momentu batzutan lagundu arren, orohar oso eguraldi txarrarekin joan dira ihoterik. Igandeko gurdi kalejirak jende asko erakarri zuen eguerdi bitartean giroaz gozatzea. Astelehenean berriz, urtero legez, herriko gazteak base-rriz baserri ibili ziren eskean egunean zehar mendi zokoak alaituz. Herriko gaztetxoak eta gurasoak arratsaldean karrapean pesta polita eta koloretsua antolatu zuten. Asteartean, otorduez gain, arratsaldez atsaureak kalejira batekin girotu zuten herriko musikeroen laguntzarekin. Orain, inguruko herrietako ihauterien txanda hasiko da.

# GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → UMORE ONA ELKARTEAN

## Kantu afaria antolatu dute otsailaren 14an

Afariarekin ateratako irabaziak herriko festetarako izanen dira

gai 15 euroren truke. Esan bezala, afariarekin ateratako irabaziak herriko festetarako izango dira.

### Egur loteak

Udaletik jakinarazi dutenez, egur lotea eskatzeko epea otsailaren 10ean bukatuko da. Horretarako, Herriko Etxera jo behar da.

### Urumea gainezka

Ondoko argazkian ageri denez, urtarilaren 25ean gainezka egin zuten erreka Olatxoko zubian eta inguruan. Argazkia atera zenerako pixko bat jautsia zetorren ura, goizaldera 30 bat zentimetroko altuera hartzen baitzuen errepidean. Beldurgarri! Madalena inguruan ez zen errepidera atera ura, baina zabal zabal zetorren erreka, bazterreko bi-deak hartuz.

UTZITAKO ARGAZKIA

Errekak gainezka egin zuen Olatxoko zubi inguruan eta errepidea hartu zuen.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

### Monumento megalitikoak ezagutu dituzte azken mendi bueltan

Umore Ona elkarteak antolatutako zortzigarren mendi buelta urtarilaren 26an egin zuten. Oraingoan, ibilbide megalitikoak egin zuten eta igande goizeko 9etan plazatik abiatuta, Martitxebe, Altzanburu, Añone, Errekaleku, Urganata eta Montefrion barna igaro ondotik, berriz ere herrira bueltatu ziren 18 mendizale, mendietan dauden zenbait monumentu megalitiko ikusi eta ezagutu ondotik, eguraldi bikainaren laguntzaz. Ondoren, mendizaleentzako bazkaria izan zuten Umore Ona elkartearen.



GIZARTEA → IPARRALDEKO MANKOMUNITATEAK DIRULAGUNTZA UKATU DU

Etxetik Plazara aldizkaria ez da banatuko aurten Leitzaldean eta Urumealdean

### TTIPI-TTAPA

1994az geroztik, Nafarroako Mendialde osoan banatu izan da Etxetik Plazara aldizkaria. Euskara etxean eta paper gainean pixka bat lantzeko aukera ematea izan da aldizkariaren helburua. 136 ale iritsi

dira irakurleen etxeetara, baina hemendik aurrera Leitzaldea eta Urumealdekoek ez dutela jasoko jakinarazi dute. Krisiaren eraginez, Iparraldeko Mankomunitateak dirulaguntza ukatu du eta ondorioz, ia 7.500 ale kaleratzetik 4.470 ale

kaleratzera pasako dira. Baztan, Bortzirriak eta Mallerrekako herritarrengan ez du eraginik izango neurriak eta orain arte bezala Ttipi Ttaparekin batera Etxetik Plazara aldizkaria jasoko dute.





GIZARTEA → OTSAILAREN 10 ETA 14AN

## Haurren ikasketa teknikei buruzko hitzaldiak antolatu ditu guraso elkarteak

Udaletxeko lehenengo solairuan 18:00etan

**Juana Mari SAIZAR**

Aresoko guraso elkarteak hitzaldiak antolatu ditu gizarte zerbitzuaren laguntzarekin. Hitzaldi hauek haurren ikasketa teknikei buruzkoak izango dira, eta deialdia irekia izango da, beraz, interesa duten guztiak parte hartu dezakete. Hitzaldiak bi saiotan banatuko dira, otsailaren 10ean lehena eta otsailaren

14an bigarrena, biak arratsaldeko 18:00etan. Ordu eta erdiko iraupena izango dute eta udaletxeko lehenengo solairuan emango dira.

### Kanpaina solidarioa

Ibarrako Oier Iribarren gazteari laguntzeko asmoz, Areson ere mugikor zaharrak biltzen ari dira eskolan. Sanfillippo gaixotasuna dauka Oierrek eta gastuak arintzeko laguntza behar du. Guk etxean behar ez ditugun mugikor zaharrek Oier lagundu dezaketenez, hasi kajoieta begira! Horretaz gain,



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA  
lazko pestetan eskaini zuen lehenengo emanaldia Dantza Taldeak, urte osoan egindako lanak fruitu ederra eman zuen.

eguberrietan umeek kantari bildu zuten dirua ere aurten Oierretzako izango da.

### Dantza taldea

Festetan dantza emanaldia eskaintzeko eta bidenabar dantzarako elkartu, dantzan ikasi, kirol pixka bat egin eta ongi pasatzeko aukera izango da berriz ere Aresoko dantza taldean. Izenemateko Sastinean, eskolan eta elkarteetan jarritako zerrendetan apuntatu edo iaz dantzan ibilizen edozeini esatea nahiko da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Antzerki taldea lanean jo eta su

Antzerki taldeak hirugarren emanaldia eskaini digu inauterietan, nabari da lanerako prest daudela! Festetan egindako emanaldiaren DVDa ere salgai jarri dute 3,50 eurotan. Norbaitek nahiko balu, eskolan eta Sastinean dauden zerrendetan izena eman edo taldekideren batekin jar dadila harremanetan.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Merkealdia**

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak  
Tafalla, 13 • IRLINEA • 948 230 634

# BAZTAN

GIZARTEA → EUSKALGINTZAREN ETA UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAREN ESKUTIK

## Mediku eta pediatria euskaldunak eskatzeko kanpaina abiatu da

Ahalik eta herritar gehienek eskaera inprimaki ofizialak betetzea da helburua

### TTIPI-TTAPA

Mediku eta pediatria euskaldunak eskatzeko kanpaina abiatu da Baztanen urtarrilaren 27tik otsailaren 28ra arte, Baztango Euskalgintzaren eta Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskutik. Kanpainaren helburua ahalik eta herritar gehienek beren mediku edo pediatria euskalduna izatea eskatzeko inprimaki ofizialak betetzea da.

### Haur eta gazte kantarien III. Topaketa

Elizondoko Abesbatza Ttiikiak antolatuta, haur eta gazte kantariaren hirugarren topaketa egingen da otsailaren



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### San Anton Eguneko zozketan 9.400 euro bildu dituzte

San Anton eguna ospatu zuten Elizondon eta urtero bezala, Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxearen aldeko zozketa egin zen plazan. 94 talonario saldu ziren oso-osorik, beraz, 9.400 euroko diru-sarrera izanen du Zahar Etxeak. Lehen saria, piriniar arrazako aretxea, 2.229 zenbakiari egokitu zitzaion. Elizondoko Idoia ileapaindegian saldu zen eta egun berean sariduna agertu ez bazen ere, gerora jakin da Maria Teresa Olondriz Berroeta elizondarrari suertatu zaiola. Bigarren saria, zerria, plazan berean agertu zen. 8.133 zenbakia izan zen sariduna eta Pello Maia albienteak saldu zion Xabier Arrastua udal langileari. Hirugarren saria, bi bildots, 2.951 zenbakiari egokitu zaiou eta Xabier Iruretak saldu zuen plazan. Magraren zenbaki irabazlea, berriz, 2.470a da, Elizondoko Ziaurritz harategian saldua. Zozketako bolak ateratzeaz Amaierko Mikel Ariztia, Ixiar Etxebere, Antton Urrutia, Aizpea Isuskiza eta Ugaitz Arribillaga arduratu ziren.

15ean, larunbat arratsaldeko 6:30etik aitzinera Iruritako elizan. Elizondoko abesbatza tti-

kiarekin batera, Baztango herrietako eskolek, San Francisco Javier ikastetxeak, Baztan

Ikastolak eta Lekarozko BHI Institutuak hartuko dute parte, kantu kantari.

### FLASH

#### Fruitondoak kimatzeko ikastaroa

Fruitondoak kimatzeko ikastaroa egingen da otsailaren 15ean, larunbat goizeko 9:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara, Xabier Akizu irakaslearekin. Izen ematea Arizkunenean egin behar da eta 16 euro ordaindu behar da matrikula. Gutenez 10 lagun eta gehenez 20 onartuko dira. Eurria egingen balu egunez aldatuko da ikastaroa. Eguerdian denbora probesteko bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du eta ikasle bakoitzak kimatzeko aitzurrak ere eraman beharko ditu.

#### Inautetako kapelu eta mozorroak egiteko ikastaroa

Kapeluak eta mozorroak egiten ikasteko hau-erregido inauteritako tailerra egingen da urtarrilaren 22an, 11:00etatik 13:30era, Birbira kolektiboaren eskutik. Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako ekimen honetarako izen ematea Arizkunenean egin behar da otsailaren 14ra arte, 4 euro ordainduta.

#### Aitatxi-amatxien papera eta arduraz solasaldia

«Aitatxi eta amatxi: papera eta ardurak» izenburupean Guraso Eskola eskainiko du Nahia Psikoterapia zentruak otsailaren 20an, ortzegun arratsaldeko 5etatik iatzinera Oronozko batzar gelan, San Martin eskolan. Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatu dute solasaldia.

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa - LEKAROZ | 948 452121 - 626 494317  
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

**DATUCELAY**

ttiipi txartela

%10eko  
DESKONTUA  
bateria eta  
amortiguadoretan



OSPAKIZUNAK → GIZAKUNDE ETA BERTZE

# Egun ofizialen aitzinetik datoz inauteriak hainbat herrietara

Gizakunde Eguna hilaren 15ean ospatuko dute Arizkun eta Erratzun

## TTIPI-TTAPA

Otsailaren 27ko Ortzegun Gizenarekin hasi eta martxoaren 4ko Inaute Astearte bitarte izanen dira inauteriak data ofizialak, baina Baztanen ere, zenbait herritan aitzinetik hasiak dira ospakizunetan. Aniz eta Berroetako gazteak urtarilaren 18 eta 25ean ibili ziren bi herrietako etxeetan. Oronozen, ilbeltzaren 23tik 25era ibili ziren gazteak, eguraldi euritsuari aurpegi ona jarritz.

## GIZAKUNDE ARIZKUNEN ETA ERRATZUN

Otsailaren 15ean, Gizakunde Eguna ospatuko dute Arizkun eta Erratzun. Arratsaldeko 4:30ean Arizkongo Gamioxarrean hasiko dira mozorroak prestatzen (mozorro txuriak, beltzak, hartza eta hartzazaina, sagardantziak, joaldunak, musikiak, fanfarrea...). Bakoi-tzak bere mozorroa eraman beharko du. 18:00etan Arizkundik Erratzurako bidea hartuko dute, Arizkongo

plazan sagardantzak dantzatu eta gero. 20:00 aldera ailegatuko dira Erratzura eta etxez etxe-ko eskea egingen dute. Geldialdietan sagardantza eta mozorrodantza eskainiko dituzte. Afaldu baino lehen herriko plazan bertsolariekin Jantzilo epaitu eta, horrela erabakitzen bada, erre egingen dute. Atseko 10etan afaria izanen da Etxelebertzeko txokoan (afariko txartelak Zubipuntan eskuragarri). Ondotik, alimaleko besta izanen da.

## ARRAIOZ

Arraiozen otsailaren 14 eta 15eko aste hondarrean ospatuko dituzte inauteriak. Ortzilerian 9:30ean Zubiondo ostatuan gelditu eta bordaz borda ibiliko dira gazteak eta 21:00etan afaria Batzarregien egingen dute.

Larunbat goizeko 9:30ean berdin gelditu eta herrian barna etxez etxe ibiliko dira. 20:00etan elizeko gorapean elkartuko dira dantzaldia egiteko. Lehengo ohiturak berreskuratzeko Elizondoko fanfarrearekin egin nahi dute dantzaldia, herriarrei ere zerbait eskaintzeko, baina hau idazterakoan erabat zehaztu gabe dago.

21etan afaria egingen



ARGAZKIA: ITXASO ARIZMENDI

## Euriari aurpegi koloretsua jarri diote Oronozko inauterietan

Ilbeltzaren 23tik 25era ibili ziren Oronozko gazteak puxka biltzen, baserrietan, herrian eta Zozaian. Eguraldi euritsuari umore onarekin egin zioten aurre.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gizakunde egunean Sagardantza dantzatzan eta Zigako gazteak goitian. Arraiozko inauteriak beheitiko bi argazkietan.

dute eta nahi duena etortzera gonbidatua dago. Paella, oilasko txilindrona eta kafea izanen dute, borondatearen truk. Gero Irune Etxeberria eta Jaione Elizagoienekin dantzaldia izanen da. «Mantso artaino» besta izanen dela iragarri dute.

Larunbat arratseko dantzaldiaren aitzinetik antolatzeke, Guraso Elkartekoek txokolatada, kareta eta bertze egitera animatzeko asmoa dute, baina hau ere ez dago konfirmatua.

## ZIGAKO ORAKUNDE ETA INAUTERIAK

Otsailaren 21ean Orakunde ospatuko dute Zigako haurrek auzo eta herrian eskean ibili ondotik bazkaria eta jokuak egingen dituzte. Oilarren jokuekin akituko dute eta gero dantzaldia izanen dute frontoian. Eguna txokolatadarekin akituko dutelarik.

Gazteek inauteak 21ean hasi eta 22ra arte luzatuko dituzte. Ortzilerian gosalduek ondoko auzo eta baserriak

bisitatuko dituzte. Larunbatean herrian ibiliko dira etxez-etxe eta ilunabarrean dantzaldia Salaberrirekin.

## ELBETE

Elbeteko Inauteriak otsailaren 22an ospatuko dituzte. Goizeko 9etan Elbeteko Posadan elkartuko dira gosaltzeko eta 10ak aldera etxez etxe abiatuko dira eskean. Ibilaldia bukatu ondoren Posadara itzuliko dira afaltzeko gosea oraindik aseptik ez dutenak.

# BAZTAN

GIZARTEA → CEDERNA-GARALURREK BULTZATUTA

## Ekintzailletza lantzen hasi dira Elizondoko Lanbide Eskolan

14 ikaslek hartu dute parte urtarilaren 23an egin zen saioan

### TTIPI-TTAPA

Enpresa eta ikastetxeak elkarrengana hurbiltzeko asmoz, 2013an hainbat bilera egin zituen Cederna-Garalurrek Hezkuntza Departamentuarekin, Nafarroako Mendialdeko lanbide-heziketako ikastetxeetan ekintza bateratuak lantzeko. Lan horri heltzeko, Mondragon Unibertsitatearekin jarri zen harremanetan eta honek gaian duen esperientzia oinarrituz, ekintzailletza-programa bat lantzea proposatu zuen Altsasuko, Baztango, Bidasoko eta Irunberriko lanbide-heziketako ikastetxeetan. Eskualdekoak izan dira programa martxan jartzen lehenak eta hala, urtarilaren 23an egin zuten ekintzailletza-programaren lehenengo saioa Elizondoko Lanbide Eskolan. Administrazio eta Finantzak goi-mailako heziketa-zikloko bigarren mailako ikasleek parte hartu zuten, dena 14 ikaslek hiru irakasleren laguntzarekin.

Ekintzailletza programak, bi fase ditu: Lehenean, saio teoriko bat lantzen dute ikasleekin,

eta bigarrean, berriz, lan-saio bat egingen da; horretan, prozedurazehatz bat baliatuta, eremuko enpresa baten arazoa analizatu, eta izan ditzakeen soluzioak aztertuko dituzte taldeka. Enpresa-arloa ikastetxeetara, eta alderantziz, hurbiltzeko modu bat da.

Ekintzailletza, sormena eta berrikuntza araz ongi uztartzen dituen programa da hau eta aldi berean, ikasprozesua aberasten eta hobetzen duten metodologiak ezagutzen eta entseatzeko dituzte ikasleek.

Cederna Garalur Elkartek ere positiboki baloratzen ditu ekimena eta ikastetxearen gogo eta inplikazioa, eta gainerako ikastetxeak parte hartzera eta elkarrekin lanean jarraitzera bultzatzen ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA


Administrazio eta Finantzak goi-mailako heziketa-zikloko 2.mailako hamalau ikaslek parte hartu zuten lehenengo saioan, hiru irakasleren laguntzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Anizko biltegiari teiltua paratu diote auzolanean

Gazteak inauterietan etxe etxe puskek zebiltzan bitartean, zaharxeagoak auzolanean aritu dira herriko biltegia izanen denari teiltua paratzen. Anizko herriko gazteak kontzeko etxola egiten ari dira aspaldixkoan aniztarrak. Baztango Udalak 9.000 euroko laguntza eman du materiala erosteko, gainerakoa herritarrek auzolanean egiten ari dira. Ilunabarrean pintterdia izan zen Elkartean, auzolanekoez gain inauterietan zebiltzan gazteak ere bertan izan ziren.





GIZARTEA → 2013. URTEARI DAGOZKIONAK

## Kirol, kultur eta gizarte jardueretarako dirulaguntzak banatu ditu Udalak

### TTIPI-TTAPA

2013 urtean kirol eta kultur jarduerak antolatzeko edo arlo horietan ari diren elkarteak eta gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteak diruz laguntzeko subentziolak onartu ditu Baztango Udalak.

### KIROLEAN 47.340 EURO

Kirol arloari dagokionez, denera 47.340 euroko laguntza eman du, 26.250 euro errendimenduko kirol jardueretarako eta 21.090 espartzimendukoetarako.

Errendimenduko kirol jarduerari dagokionez, CD Baztanek 7.250 euroko laguntza jasoko du; BRT-Menditarrak taldeak 7.550 euro; Txaruta Pilota Elkarteak 4.500 euro, Baztango Kirol Taldeak 5.950 euro eta Amaiurko Sokatira Taldeak 1.000 euro.

Espartzimenduko kirol jardueretarako, Baztan Ikastola 1.850 euroko dirulaguntza jasoko du; San Francisco Javier ikastetxeak 3.450 euro; Laxoa Elkarteak 1.360 euro; Baztango Mendigoizaleak 2.000 euro; Arania Kirol Taldeak 80 euro; Txaruta Pilota Elkarteak 2.800 euro; CD Baztanek 2.200 euro;

BRT-Menditarrak taldeak 1.500 euro; Basaburu Kirol Taldeak 1.050 euro eta Baztango Kirol Taldeak 4.800 euro.

### KULTURAN 21.260 EURO

Kultur jarduerak egiteko eta kultur elkarteak diruz laguntzeko 21.260 euro bideratuko ditu Udalak. Horietatik 15.632 euro kultur elkarteek jasoko dute, honela banatuak: Baztandarren Biltzarrak 6.000 euro, Erratzuko Kultur Elkarteak 3.350 euro, Iruriko Dantzariak 2.149 euro, Elizondoko Recreo Musika Banda 2.112 euro, Jo ala Jo elkarteak 2.021 euro, Museoaren Lagunak-Kasino Elkarteak 962 euro, Baztango Dantzariak elkarteak 410 euro, Elizondoko Abesbatzak 316 euro eta Itsusi elkarteak 132 euro. Guraso Elkarte ezberdinek 4.269 euro jasoko dute eta bertze bi elkarteak 1.359 euro (Lore emakume elkarteak 927 euro eta Legate barrideen elkarteak 432 euro).

### GIZARTE PROIEKTUETARAKO 16.000 EURO

Gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteek 16.000 euroko dirula-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Jendetza bildu zen tokiko garapenari buruzko solasaldian

140 lagun bildu ziren ilbeltzaren 18an Arizkunenean, tokiko garapena ardatz hartuta, Jaime Izquierdo Vallina asturiarra, idazlea eta lurralde garapenean aditua, izan zen hizlaria. Jakoba Errekondo izan zuen lagun eta bien artean, publikoaren galderei erantzunez eztabaida interesgarria piztu zuten.

guntza jasoko dute Udaletik, honela banatuak: Bidelagun elkarteak 4.762,80 euro, Xaulik 2.600 euro, Elikagai Bankuak 2.591,40 eu-

ro, Anasaps-Dizdirak 2.200 euro, Anfasek 1.503,80 euro, Eguzki-lorek 1.242 euro eta Afinak 1.100 euro. Nazioarteko koope-

raziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko, berriz, 41.912,53 euro bideratu ditu Baztango Udalak.

gurekin  
**HAZI**  
gurekin  
**BIZI**  
gurekin  
**HEZI**

Bilera informatiboa  
**otsailak 12**  
17:00 etan  
(Parkeko ikastolan)

Matrikulazio epea  
**otsailaren 20tik 26ra**

**BAZTAN**  
**IKASTOLA**  
UDAL ESKOLA PUBLIKOA

Mendinueta z/g. 31700 Elizondo, Baztan. T. 948 45 24 48 - 948 58 02 56.  
Emaila: baztan@baztangoikastola.com.  
www.baztanikastola.eu

# ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → TURISMOA

## 71.000 lagunek bisitatu zituzten lezeak gan den urtean

Horietatik 24.000 museoan ere izan ziren

### Margari eta Koro

Gure herriko *Beitiko karrika* 71.000 lagunek kurritu zuten goiti eta beheiti gan den urtean, 2013 urteko turismo datuek adierazi dutenez, hauxe izan da lezeetan sartu zen pertsona kopurua. Horietatik, 24.000 lagunek lezea bisitatzeko gain, museoan ere izan ziren.

Kontuan hartzeko moduko kopurua da, herri ttiki batentzat ohore handia baita hainbat leze lagunengan inbertsa piztea.

Horretaz gain, aipatzekoa da museoan herriarrentzat toki balioetsua dela, zenbait ekitaldi egiteko arrazaprosu baita: antzerkiak,

kantaldiak, hitzaldiak, pelikula emanaldiak, ikastaroak, erakusketak... hamaika gauza antolatu dira bertan ireki zenetik, duela sei urte eta erdi.

### 3.000 kilometro egin ditu 15 urtez Atxuria mendi taldeak

Atxuria Mendi Taldea sortu zenez geroztik, 15 urte igaro dira eta egingako ibilbideetan, orotara, 3.000 kilometro osatu dituzte. Hau ospatzeko hiru ekitaldi prestatu dituzte otsailko azkeneko aste hondarrean.

Larunbata eta igandean, museoan argazki erakusketa bat egonen da, urte guzti hauetan ateratako argazkiekin.

Igandean, lau bat oreneko ibilaldi bat antolatu dute Alkerdi aldetik hasiz, eta errota-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Atxuria mendi taldea Arranomendiko bidean, 2001 urtean.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### Aste Txuria Isaban

Escolako haurrek Isaban gustura pasatu zuten aste-txuria.

raino ganen dena, hau da, Zugarramurdiko eremu xelaienak kurrituko dira iparralde aldera daudenak. Ibilaldia museoan bukatuko da, ar-

gazki erakusketa ikusi ahal izateko.

Bazkari herriko bat ere egingen da "Azketa" jabetxean. Izen-ematea jabetxean berean edo te-

lefono huntara deituz: 675 520 339.

Igandeko ekitaldietara, eskualdeko mendizaleei etortzeko konbitea egin zaie.

ttipi-ttapa-rekin  
**AURREZTU EZKONTZAKO GONBIDAPENETAN**

100 flyer  
**150€**

100 bi-erriko  
**170€**

Kalorietan | Daxinosa barne  
Inprimatu barne | Sirebreak barne  
Larrarria barne | BEZA barne  
Eguzki: 10 lan egun

Eskatu informazioa 948 635 458

ARMUA JATEKIA

T. 948 599 131  
Zugarramurdi eremu, 3. an  
LEZAZULU

ttipi-ttapa

info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

**BERA** Zere ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinorro, armiarma, kukxoa...) eta orratei xagatuz garbitu nahi baduzu, deituz Termite eta Pipien tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 507 • Zain, 42 A • BERA



KULTURA → HEDADURA HANDIAGOA HARTU NAHI DU

## Arte garaikide festibala ospatuko da udazkenean hirugarren aldikoz

Anne Marie Jeannou eta Iñaki Viquendik apailatuko dute urrian

**Franck DOLOSOR**

Berinak Senpereko arte garaikide festibala hirugarren aldikoz apailatuko dute heldu den urrian Anne Marie Jeannou eta Iñaki Viquendik. Bi senpertar hauek arte ederrak ikasi zituzten eta orain beren zaletasuna hedatu nahi dute herritarren artean. 2009an, Berinak festibala asmatu zuten eta bi urte geroago artista frango gonbidatu zituzten berriz Senpererat. Aurten, festibalaren

parte bat Inharrean iraganen da, eta bertzea irailen estreñatuko den Larreko ikusgarri gela berrian. Hirugarren hitz orduak hedadura handiagoa hartuko du eta sorpresak eskainiko ditu.

### Andoni Iturrioz telebistan

Azken urteetan euskara eta euskal kulturaren aldeko laguntza handia eman du Andoni Iturrioz, Larralde kultur etxeko jabeak. Gure herrian laketu den gipuzkoar hunekin mintzatu da berriki Allande Boutin France 3 Euskal Herri telebistako kazetaria. Bien arteko solasaldia "Txirrita" France



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Pottokak nagusi Ezpeletako plazan

Urtarrilaren azken astearte eta asteazkenean pottokak nagusitzen dira beti Ezpeletako plazan. Aurten ere hazleek zioten gero eta gutiago saltzen dutela, halere Ezpeletarat joan zirenek egun goxoak pasatzeko parada izan zuten. Bisitarien artean senpertar, saratar eta Nafarroa mendialdeko lagun andana ageri zen aurten ere.

3 Aquitaine kateko emankizunean ikusten ahalko da heldu den martxoaren 2an igandearekin goizeko 11:30ean, eta gero interneten. Sustrai Colina bertsularia, Agurtzane Anduetza artista, Gorriti eta Basterretxea zizelkariak eta Jean Michel Bedaxagar kantariak ere agertuko dira Senperen grabatu duten "Txirrita" emanaldi hortan. Andoni Iturrioz hobeki ezagutzeko parada eskainiko du Allande Boutin kazetariak.

### Lapurdi 1609 elkarte lanean

Duela 5 urte Lapurdi 1609 elkarte muntatu zen herrian 400 urte lehenago Euskal Herrian gertatu ziren epai-ketak gogoratzeko eta hemengo historia ezagutarazteko liburu, mintzaldi eta antzerki baten bidez. Duela 200 urte Urdazuri aldean Napoleonen soldaduek egin desmasien berri eman zuen elkarte berak iaz. Talde huntako kideak ez daude geldirik eta orain munduko lehen gerla gogoratu na-

hi dute abuztuan mendea beteko baita gatazka handia hasi zela. Mintzaldi zikloa prestatzen ari dira eta jadanik jakin da Eneko Bidegain kazetaria eta Mondragon Unibertsitateko irakasleak hitzaldia eskainiko duela gai hortaz Senperen udazkenean. Munduko lehen gerla eta bere aipamenak Euskal Herriko orduko prentsan sakonki aztertu ditu Bidegainek eta horren berri emanen du Elkar argitaletxeak laster plazaratuko duen liburuan.

**JATETKEA-ERBETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TARREO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarinetatik  
2 km. tara

PLATER KOMBINATUAK - OGITARTEKOAK  
MENUAK INKARGUZ - PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com

**VENTA PEIO**  
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Besa (Administratiboa) 30700 BESA  
Bertsoarria 30712 URDAGIA  
Berrito 30700 BESA  
Luzarria 30700 LUZARRIA

VENTA PEIO

# SARA

GIZARTEA → MARTXOAREN 9AN

## Selauru hustea antolatu du Eskola Publikoaren Lagunak elkarteak

Izen emaitako azken eguna otsailaren 25a izanen da

**Joana GERENDIAIN**

Heldu den martxoaren 9 an «Les amis de l'école publique» elkarteak selauru huste bat antolatzen du. Izena emaitako azken eguna otsailaren 25a da eta postaz igorri beharko dira paperak, ondoko helbidera: «Les amis de l'école publique», Pascal Etcheverria, Bide Hegia, Mendiondoko bidea ; 64310 Sara. Izen emaita paperak ukaiteko eskolako guraso el-

karteari galdetu behar zaio. Leku batek 3m x 3m -ko zabalera du eta 15 euro balio du.

### Eskolen ihauteria

Usaian bezala neguko bakantzeen bezperan hiru eskoletako haurrak elkartuko dira ihauteriak ospatzeko. Otsailaren 14an, ostirala, arratsaldez herrian gaindi ibiliko dira mozorroturik eta musika-rekin, ondotik Zanpantzarren auzia eginen da eta bukatzeko krakada on baten inguruan elkartuko dira.

### Mus txapelketa

Otsailaren 22an larun-



ARGAZKIA: KANALDUDE TB

### Sarari buruz Kanaldude TBak egindako DVDa salgai

2013ko abenduan Kanalduden (tvp) pasatu den Sarari buruzko Tokika emanizunaren DVDa salgai da 15 eurotan Sarako Turismo Bulegoan eta Herriko Etxean.

batarekin, Sarako errugbi elkarteak mus txapelketa eginen du. Txapelketa arratsaldeko 2 etan hasiko da eta arratsalde guzian iraganen da. Izena emaitako: 06.11.83.44.26 edo 06.13.95.12.54 zenbakietara deitu behar da. Partidak bukatu eta, gauean, afari bat antolatu dute, deneri idekia izanen da eta ez bakarrik jokalariei.

### UsoPOP kontzertua otsailaren 16an

Otsailaren 16an, igandearekin, arratsaldeko 5etan eta USOPOP elkarteak kontzertua antolatu du Sarako Santa Katalina kaperan. Eibarko Mursego taldeak bere azken diskoa aurkeztuko du; harekin Barbarossa talde inglesar izanen da. Sartzak 5 euro balioko du.

### Esku baloia

Urtarrilaren 25-26 ko asteburuan esku baloi matxa gutti jokatu dira denboratxarrarengatik, 11 urte azpikoak etxean aritu dira eta galdu egin dute Nafarroaren kontra 27-10. Seniorrak ere etxean aritu dira Lucq de Bearneko taldearen kontra eta galdu dute 21-22, bi urte zeramatzaten etxean garaituak izan gaitu.

Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa  
Koskontako Bidea, 7-1  
LESACA | 948635458

**Imanol GAZTELUMENDI ZABALET**

*Euri tantan hautsi haiz  
ilbeltzeko erauntsian  
borrokalaria xaloa.*

*Handituriko errekan bahoia  
itsasorat,  
baraturiko herriak  
irabaziko duen askatasunerat.*

**BAZTANGO SORTU**  
Elizondo-Baztanen 2014ko ilbeltzaren 28an

**Antonio VERTIZ GALAÑENA**  
16/01/1930 - 18/06/2013

*Iritsi da zure urtebetetze eguna,  
eta ezin zurekin Zorionak kantatu,  
umorez eta alaitsu  
egon ginen elkarrekin  
eta oroitzapen ahaztezin horiek  
geldituko dira gurekin.*

**ETXEKOAK**





**Martutzak**  
ZURE OSPAKIZUNETARAKO  
BEHAR DUZUN GUSTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Berako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA  
948 631 425



**kukuka**  
BIGARREN PRENDA 1€

Zarapirute, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

## HERIOTZAK

**Maria Magdalena Eskudero Hernandorena**, Goizuetakoa, urtarrilaren 23an, 75 urte.

**Ignacio Ugaldé Barberón**, Berakoa, urtarrilaren 19an, 78 urte.

**Julia Zubia Iguzkiagirre**, Igantzikoa, urtarrilaren 19an, 85 urte.

**Josefa Baleztena Alberro**, Iturengoa, urtarrilaren 25ean, 89 urte.

**Josetxo Susperregi Inda**, Lesakakoa, urtarrilaren 21ean, 54 urte.

**Juan Etxenike Adansa**, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 20an, 78 urte.

**Jesus Mari Marisko Santxotena**, Erratzukoa, urtarrilaren 24an, 63 urte.

**Pantxo Iparrea Iribar**, Elizondokoa, urtarrilaren 26an, 72 urte.

**Lidia Jaurena Elizondo**, Elbetekoa, urtarrilaren 26an, 76 urte.

**Aniceta Olaetxea Gue**, Berakoa, urtarrilaren 26an, 91 urte.

**Juan Felix Goienetxe Ermiaga**, Doneztebekoa, urtarrilaren 27an, 76 urte.

**Manuel Imanol Gaztelumendi Zabalera**, Elizondokoa, urtarrilaren 27an, 86 urte.

**Luis Maria Etxeberria Agerre**, Arraiozkoa, urtarrilaren 28an, 82 urte.

## SORTZEAK

**Beñat Ibarra Bereau**, Arantzakoa, urtarrilaren 16an.

**Iraide Gogortza Etxeberria**, Doneztebe-Ezurrakoa, urtarrilaren 21ean.

**Oihan Iturbide Royo**, Lesakakoa, urtarrilaren 14an.

**Ibai Iturbide Royo**, Lesakakoa, urtarrilaren 14an.

**Julen Aranguren Zaldia**, Lesakakoa, urtarrilaren 14an.

**Hegoi Zelaieta Urriza**, Lesakakoa, urtarrilaren 16an.

**Nerea Altzu Martin**, Iturengoa, urtarrilaren 12an.

**Beñat Ariztia Barazabal**, Azpilkuetakoa, urtarrilaren 10ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## EZKONTZAK

**Ez dago datu berririk.**

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



### **Antonia GOLDARAZENA OTEGI**

Lesakan, 2013ko otsailaren 16an

I. URTEMUGA

*Ama zenbat egin duzun gugatik orain ere laguntzen ari zara zerutik-zutat oroitzean negarra heldu zait bi begietatik. Mila esker Antxoni, bihotz bihotzetik.*

**ZURE FAMILIA, AGUR IKUSI ARTE**

Urtemugako meza otsailaren 16an, goizeko 11:30ean izanen da Lesakako San Martin elizan



### **Amparo BERLANGA PALOMARES**

«La Valenciana»

Lesakan, 2013ko otsailaren 3an

I. URTEMUGA

*Gure aingeru guardakoa zara yaya, horrela sentitzen zaitugu beti zure oroitzearenarekin, bizitza bizituko dugu eta bizi horren bukaeran, besarkatuko zaitugu.*

**ETXEKOAK**



### **Bittori FAGOAGA BERAU**

Lesaka 1930-X-25 / 2013-XII-15

*Gure aterpe, indar eta babesleku izan zara, guri eskainiz zure buruari kentzen zenion denbora.*

*Zauden lekutik, lagundu gaitzazu gure bidean.*

**ZURE FAMILIA**

*Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzun guziet, mila esker*

Moto eta kotxe kirolak betidanik gustatu izan zaizkio duela 25 urte Beintzako Txilategian sortutako Juan Mari Goñi Albisturri. Afizio haundi horri eutsiz, otsailean hasiko den

Espainiako moto-kros txapelketan parte hartuko du lehen aldiz. Halere, ez da kompetizioan murgiltzen den lehenbiziko aldia: Duela bospasei hasi zenetik, Frantzian, Holandan

edo Katalunian barna ibilia baita. Espainiako txapelketak ahalik eta puntu gehien lortu nahi ditu, baina bertze kompetizioak ere ez ditu alde batera utziko.

Juan Mari GOÑI ALBISTUR | Beintza-Labaiengo moto-kros gidaria

# «Moto gainean nabilenean ez dago batxeak, lohia eta saltoak bertzerik»

Aitor AROTZENA | LABAIEN

Duela bospasei urte hasi zen moto-krosean ibiltzen eta konpetitzen Beintzako Juan Mari Goñi. 2013an Frantziako txapelketako proba batzuk egin zituen, baita Aquitania Elite liga osorik egin ere, zortzigarren postuan akituz. Katalunian Segre txapelketan laugarren postua lortu zuen iaz eta duela bi urte Holandan ere ibili zen konpetitzen.

Juan Mari Goñik aipatu digunez, «nik etxean ez dut izan inor kirol honetan sartu nauenik eta hortaz pixkot berandu hasia naiz. Horretaz aparte, gure eskualdean ez da motocrossean aritzeko instalaziorik eta horrek zaildu egiten du kirol ikusgarri hau eza-gutzea».

Gazteagoa zenean, 10-11 urterekin mendibizikletan eta eskolan egin ohi diren kiroletan ere aritu zen Goñi, baina motoan ez du bertze modalitaterik probatu: «Hau dut gustoko eta ez dut aldatzeko intentziorik», dio.

Frantzian, Holandan eta Espainian barna hainbat probetan parte hartu du urteotan Beintzako moto gidariak, baina lehen aldiz izanen du Espainiako txapelketa osorik egiteko aukera. Helburuei dagokienez, «proba bakoitzean ahal den punturik gehien lor-



UTZITAKO ARGAZKIA

Juan Mari Goñi, Katalunian iaz egindako proba batean.

tzea da asmoa, urte bukaeran postu on bat lortu ahal izateko. Zortzi proba dira eta Espainiako bazter guztietatik barna ibiliko gara, txapelketa garestia da hortaz, baina lesiorik ez baldin bada, espero dut denetan parte hartu ahal izatea».

Hain zuzen, lehen proba otsailaren 22-23ko asteburuan izanen du Albaidan (Valentzia). Ondotik, martxoaren 22-23an Talavera de la Reina (Toledo), apirilaren 4-6an Valverde del Caminon (Huelva), maia-tzaren 17-18an La Bañezan (Leon), ekainaren 7-8an Alhaman (Murztzia), irailaren 20-21ean Malpartidan (Caceres),

## KONPETIZIOA ATSEGIN

«Gauzak zailtzen diren neurrian gehiago eskatzen diozu zure buruari eta horrek erakartzen dit, konpetizioa atsegin dut. Edozein kirol eginez gero, ez dakit konpetitu gabe egoten»

## LESIOEN ARRISKUA

«Kirol guzietan alde txarrean lesioak dira eta motoarekin erraza izaten da lesioak gertatzea edozein erorketan».

urriaren 11-12an Bellpuig-en (Lleida) eta urriaren 25-26an Don Beniton (Badajoz) izanen dira probak.

Baliabide ekonomikoek eta egutegiak uzten dioten neurrian, bertze konpetizioak ere ez ditu alde batera utziko Beintzako moto gidariak, «hori etorri ahal ikusiko dugu».

## KIROL GARESTIA

Izan ere, motor kirol guztiak bezala, kirol garestia da motocrossa ere. Juan Mari Goñik jakinarazi digunez, «urte-urte bi moto edukitzen ditut eta mantenimendu handia eskatzen dute konpetitu ahal izateko, ezin duzu deus alde ba-

tera utzi. Horretaz aparte, probak egin eta entrenatzeko kilometro ugari egiten dira. Egia da laguntza batzuk badituzala, baina ez esponsor ofizialik. Gainera, zenbat eta postu hobekak lortu, gehiago nahi izaten da eta hori aurrera eraman ahal izateko esfortzu handia egiten dugu bai nik, baita nire amatxik eta amak ere».

Baina esfortzu horren gaitetik, motoan dabilenean sentitzen duen atsegina dago. Beintzako gidariak erran digunez, «kirol hau hain gustoko izanda, moto gainean nagoenean ez dut bertze mundurik sumatzen: batxeak, roderak, lohia eta saltoak bakarrik. Gauzak zailtzen diren neurrian gehiago eskatzen diozu zure buruari eta horrek erakartzen dit, konpetizioa atsegin dut. Edozein kirol eginez gero, ez dakit konpetitu gabe egoten». Alde txarrean, berriaz, lesioak dira, «eta motoarekin erraza izaten da lesioak gertatzea edozein erorketan».

Akitzeko, Juan Mari Goñik eskertu nahi ditu laguntza eskaintzen diotenak: «Etxekoak, Jose Luis Martinez pilotoa eta bere familia, Txomin Irazoki fisioterapeuta, mx-arvi.es tailerra, Six Days Villaba moto denda, ER-4 konpetizio tailerra eta JMC competición».



ERREMONTA → URTARRILAREN 18N JOKATUTAKO FINALEAN

# San Miguelekin ederki sufrituta eutsi dio Urrizak Masterreko txapelari

30-28 irabazi zion Iruñekoak doneztebarrari

## TTIPI-TTAPA

Orain arteko finalik gogorrena jokatuta, 30-28 irabazi zion Urrizak urtarrilaren 18an jokatutako Masters txapelketako finalean Julen San Miguel doneztebarrari. Azken honekin, Urrizak, banakako txapelketetako azken lau txapelak jantzi ditu: Kutxa Torneoko azken biak eta Masterreko berte biak.

Hirugarren aldia zen, banakako txapelketa bateko finalean aurrez aurre zirela Urriza eta San Miguel. Eta aurreko bietan bezala, Urri-



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Estu hartu zuen San Miguelek Urriza, baina txapela Iruñera joan zen berriz ere.

za izan zen nagusi. Dena dela, San Miguelek aurrekoetan baino gehiago estutu zuen eta ezustekoa emateko puntuan ere izan zen

Doneztebeko atzelaria; 15-20, aurretik izan baitzen markagailuan. Hala ere, Iruñeko aurrelariak ongi erantzun zuen eta partiduari buelta

ematea lortu zuen, 27-22ra jarriz. San Miguel hobeki ari zen jokatzen, gogor ematen zion pilotari eta ongi asmatzen zuen, baina hainbat huts

egin zituen eta ez zuen asmatu zenbait tanto bukatzen. Hutsegiteek erabaki zuten lehia. Urrizak lau egin zituen denera eta San Miguelek bederatzi. Partidua 27-22an erabakita zegoela zirudien, baina San Miguelek ez zuen etsi eta 28-27 estutu zuen markagailua. 29-28 ere jarri ziren, baina dejada batekin bukatu zuen partida Urrizak.

Pilotak aukeratzera koan biziagiak iruditu zitzaizkion Urrizari, baina finalean ez zuten aparteko arazorik eman. San Miguelek 9 tanto egin zituen sakez, eta 2 falta. Urrizak 7 tanto egin zituen lehen pilotakadarekin, baina faltarik ez. Beraz, horretan ez zen alderik izan.

PILOTA → HAMAHIRUGARREN EDIZIOA

# 103 pilotari hasi dira Bortziritako eskuz banakako txapelketan

Martxoaren 15ean jokatuko dira finalak Lesakan

## TTIPI-TTAPA

Bortziritako lau terdiko eskuz banakako pilota txapelketaren hamahirugarren edizioa urtarrileko azken asteburuan abiatu zen. 103 pilotari ari dira jokatzen, zortzi kategoriatan ba-



natuak. Dena ongi ateratzen bada, finalak martxoaren 15ean jokatuko dituzte Lesakan.

Bortziritako pilotariek batera, Oiartzun, Hondarribia, Irun,

Baztan eta Iparraldekoak ere ariko dira txapelketan. Kategoriatikiek (ttikiak, Umeak B, Umeak A, Kimuak B eta Kimuak A) ligaxka moduan jokatuko dute eta infantilek, kadeteek eta jubenilek kanporaketak dituzte. Partidak, Beran ortziral eta igande goizetan, Lesakan larunbatetan, Arantzan larunbatetan eta Etxalarren igandetan jokatuko dituzte.

PILOTA → OTSAILAREN 16A BITARTE

Jose txo Ezkurra XXIV. memorialean izen emateko epea ireki du Errekak

## TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak 24. aldiz antolatutako Jose txo Ezkurra Memorialeko eskuz banakako pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu du. Benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubenil mailako pilotariek eman dezakete izena otsailaren 16a bitarte. Horretarako, [salaa@gmail.com](mailto:salaa@gmail.com) helbide elektronikora idatzi behar da.

Txapelketa martxo erdialdera hasiko da eta ekainaren azken astean, Doneztebeko



San Pedro bestetan jokatuko dituzte finalak. Maila guztietan txapelketa irekia izanen da eta kanporaketa moduan jokatuko da. Igande goizez jokatuko dira partidak.

## otsailak 6 - 20

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Inauteriak**

ESKUALDEA | 2014.02.06-28

**Inauteriak izanen dira han eta hemen**

Urteko bestarik eroenek ez du-  
te etenik. Atejoka ditugunak Do-  
namaria, Arantza, Arraioz, Sen-  
pere, Ziga, Igantzi eta Elbeteko  
inauteriak dira.

**Solasaldiak**

ORONOZ-MUGAIRI | 2014.02.20

**Guraso eskola Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta**

*Aitatxi eta amatxi: paperak eta ar-  
durak.* Izenburu hori duen solasal-  
dia eskainiko dute Nahia psikote-  
rapia zentrukoek otsailaren 20an  
Oronozko batzargelan, 17:00etan.

**Kontzertuak**

BERA | 2014.02.15

**Jabier Muguruzaren kontzertua Kultur Etxean**

*Beste hoge* izeneko lan berria  
kaleratu du Jabier Muguruzak,  
bere 12.a kantautore gisa hasi  
zenetik 20 urtera. Otsailaren  
15ean Beran izanen da.

**Otsailaren 14an** Umor-  
re Ona Elkartearen, Ima-  
nol Kamiok lagunduta.

IRURITA

**Haur eta gazte kantarien topaketa**

**Otsailaren 15ean** Iruri-  
tako Elizan, 18:30etan.

**Kontzertuak**

ELIZONDO

**Napoka iriaren kontzertua**

**Otsailaren 23an** Ariz -  
kunenean, 17:00etan.

BERA

**Jabier Muguruzaren kontzertua**

**Otsailaren 15ean** Kul-  
tur Etxean, 22:00etan.

SARA

**Kontzertuak Santa Katalina kaperan**

**Otsailaren 16an** Mur-  
sego taldea eta Baba-  
rossa inglesa taldean  
kontzertuak 17:00etan  
Usopopek antolatuta.

**Inauteriak**

DONAMARIA

**Mozorro besta**

**Otsailaren 7, 8 eta**  
**9an.**

ARANTZA

**Mozorro zuriak etbez etxe**

**Otsailaren 13tik 15era.**

ARRAIOZ

**Etbez etzeko eskea**

**Otsailaren 14-15ean.**

SARA

**Escolen inauteriak**

**Otsailaren 14an.**

ERRATZU-ARIZKUN

**Gizakunde**

**Otsailaren 15ean.**

SENPERE

**Mozorro besta**

**Otsailaren 14-15ean.**

**Solasaldiak**

DONEZTEBE

**Pentsioen inguruan**

**Otsailaren 6an**  
Arkupeak-en egoitzan  
18:00etan.

LEITZA

**Pentsioen inguruan**

**Otsailaren 13an**  
zineman 18:00etan.

ELIZONDO

**'Janari osasuntsuak nola prestatu'**

**Otsailaren 12an** esko-  
lako sukaldian (17:00).

ORONOZ-MUGAIRI

**'Aitatxi eta amatxi: papera eta ardurak'**

**Otsailaren 20an** batzar-  
gelan, 17:00etan.

ETXALAR

**Dokumentala eta hitzaldida**

**Otsailaren 14an** *Oligo-  
poly* ikusgai eta Goie-  
ner kooperatibako pre-  
sidentearen hitzaldia  
Kultur Etxean (18:30)

ARESO

**Haurren ikasketa teknikak hizpide**

**Otsailaren 10 eta 14an**  
udaletxean (18:00).

**Tailerrak**

ELIZONDO

**Inauterietako tailerra**

**Otsailaren 22an** Kape-  
luak eta moztarok egi-  
teko tailerra. Izen-ema-  
tea Arizkunenean.

**Frutalak kimatzeko**

**Otsailaren 15ean** Xa-  
bier Akizurekin goiz-  
arratsalde. Izen-  
ematea Arizkunenean.

**Ospakizunak**

SARA

**Gaualdia**

**Otsailaren 8an** Sarako  
Urtxintxak antolatuta.

EZKURRA

**Jubilatuena besta**

**Otsailaren 15ean.**

**Ikuskizunak**

ZUGARRAMURDI

**Maialen Lujanbio eta Xabier Erkizierekin**

**Otsailaren 8an** *Txori*  
*mugariak* ikuskizuna  
19:00etan Museoan.

**Otsailaren 22an** Bolet  
Còsmic ikuskizuna  
19:00etan Museoan.

**Bertoak**

ESKUALDEA

**Bardoak ekimena****Otsailaren 7an**

Erratzuko Zubipunta  
ostatuan 21:00etan.

**Otsailaren 7an** Lesa-  
kako Lindurrenborda  
sagardotegian (19:30).

**Otsailaren 7an**  
Zubietako estalpean,  
20:00etan.

**Otsailaren 14an**  
Berako gaztetxean,  
21:00etan.

**Otsailaren 15ean**  
Leitzako Aurrera elkar-  
tean, 18:00etan.

**Kantuak**

GOIZUETA

**Kantu afaria**

## PROPOSAMENA

BERTSOLARITZA

**Otsailaren 7an hasiko da Bardoak 2014**

Aurten bigarren urtez,  
Bardoak taldekako  
bertso ekimena egingen  
da Nafarroan. Bertsoza-  
leari bertsolaritza go-  
zatzeko aukera berria  
eskaintzeko asmoz  
sortu zen eta bertsolari  
txapelketa bi urtetik be-  
hin egitea erabaki ze-  
nez, honen osagarri.  
Otsailaren 7an Lesakan,  
Zubietan eta Erratzun,  
otsailaren 14an Beran  
eta 15ean Leitzan  
saioak izanen dira.





ZIGA

**Etbez etzeko eskea**  
Otsailaren 21-22an.

IGANTZI

**Etbez etzeko eskea**  
Otsailaren 21 eta 22an.

ELBETE

**Etbez etzeko eskea**  
Otsailaren 22an.

**Filmak**

LEITZA

**Asteburuko zinemako hitzorduak**

**Otsailaren 14, 15 eta 16an** *El Hobbit. La desolación de Smaug* filma ikusgai. Ostiralean 22:30etan, larunbatean 17:00etan eta igandean 19:30etan.

**Otsailaren 21 eta 23an** *El último Elvis* ikusgai. Ostiralean 22:30etan eta igandean 19:30etan.

DONEZTEBE

**Filma ikusteko aukera**

**Otsailaren 16an** *Aviones* 16:30etan eta *Los juegos del hambre*, 18:30etan.

ETXALAR

**Dokumentala**

**Otsailaren 7an** *Baso ahaztuak* dokumentala 19:00etan Kultur Etxean. Gero, solasaldia.

**Mendi irteerak**

BAZTAN

**Baztango**

**Mendigoizaleen irteerak**

**Otsailaren 9an** Elizondotik 06:00etan aterata Alkozera ateraldia.

**Otsailaren 16an** Lizar-meakatik Azkarrera, 08:00etan abiatuta.

ZUGARRAMURDI

**Atxuria Mendi Taldearen 15 urteak**

**Otsailaren 9an** Zugaramurdin barna .

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



**B**i poema luze osatzen Luis Garde doneztebarraren liburu hau. Egilearen erranetan, «biak aski narratiboak dira, haietako banatan argudio bat garatzen da; hain zuzen trenez egindako bidaia bat». Lehenengoan bizimodu motelaren laudorioa egiten du: «gaurko bizimodu presatiak paisaia lasai ikuskatzeko astirik ez digu uzten; nire ustez hori boterearen estrategia da: banakako hausnarketarako ahalmena gaitzen badugu, gero eta manipulagarriagoak izanen gara». Bigarren poeman maitasunaren laburtasunaz idazten du: «Horretarako pasadizo bat asmatzen dut, trenez Veneziarat egindako bidaia batean elkar ezagutzen duten bi arima bakartiren bidez, hain zuzen». Berriki epaitutako eta zigortutako nafar tartalariei eskaini nahi die azken liburu hau Luis Gardek. *Trenen abiadura* poesia liburuarekin batera, *Maizter arrotza* ere kaleratu du berriki, duela urte bete Bilboko Udalaren Blas de Otero saria jaso zuena. Erein argitaletxeak editatu du.

**Musika**



**1**997. urte amaieran Arrasaten (Gipuzkoa) sortutako street punk taldea da Arkada Social. 2003 hasieran argitaratu zuten euren lehendabiziko lana, *Sin sufrimiento no hay gloria*, eta arrakasta izan zuen. Baina taldea desegin egin zen eta horregatik belaraldi berriek ez zuten euren zuzenkorik ikusteko aukerarik izan. 2006an, ordea, taldeak hiru kontzertuko bira bat iragarri zuen Arkada Social osatzen duten lagun eta jarraitzaileei eskainitako babes eskerterako asmoz. Kontzertu horiek sekulako arrakasta izan zuten eta bigarren lana kaleratu zuten, *Para Siempre*. 2008an *Zuzenean* izeneko DVDa kaleratu zuten eta orain argitaratu dutena euren bosgarren lana da: *Hil orduko bizi*. 2013ko urrian Usurbilgo Higain estudioan Haritz Arregik grabatu zuen eta Juan Hidakok masterizatu. 2013ko abenduaz geroztik dago salgai Mauka diskografiaren eskutik. Hamaika kantako lana osatu dute eta abestiak euskaraz eta gazteleraz dira.

**Internet**



**E**uskaltzaileen Topaguneak *hiztegitxoak.eu* webgunea paratu du martxan. Euskaratik bertze 35 hizkuntzetara, eta alderantziz, oinarritzko hiztegiak lortzeko aukera ematen du. Honela, egunerokotasunean hizkuntza ezberdinetako hiztunen artean zubi hizkuntza euskara izatea bultzatu nahi du. Topaguneak gogoratu du, munduan 6.500 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla. Euskal Herrian ere euskaraz gain bertze hizkuntza ugari bizi dira eta «bakoitzak bereari uko egin gabe, euskara izan dadila guztion arteko kohesio eta komunikazio hizkuntza», adierazi dute Topagunetik. Webgunean 330 hitzeko oinarritzko hiztegia eskura daiteke eta inprimatu egunerokotasunean erabiltzeko. 35 hizkuntza horietako batzuk gainera, hizkuntza gutxituak dira. Gisa berean, erabiltzaileek hizkuntza berrietako oinarritzko hiztegiak txerta ditzake webgunea gero eta hizkuntza gehiagorekin elikatuz.

euskaratik bertze hainbat hizkuntzetara eta alderantziz hiztegiak

**HIZTEGITXOAK.EU**

**Nire aukera**



Izaro BIDEGAIN  
Arizkungo gaztea

**«Hartza atera aitzin jotzen diren danbor hotsek tentsioa sorrarazten didate»**

**E**gutegiari adi begira dago dagoeneko Izaro, «otsailaren 15ean gizakunde ospatzen dugu Arizkunen eta inauteriak laister ailegatuko direla erran nahi du horrek». Bestan zuzenean parte hartzen ez duen arren albotik begira egon ohi da «mozorroak, sagar dantzariak... ikusteko polita izaten da». Inauterietan ordea ez da iskina batean gelditzen, «arras gustuko ditut, batez ere etxe etxe eskean ibiltzen garenean». Inauterietako asteartean, hartzak atera behar duenean entzuten diren danbor hotsek «tentsioa sorrarazten» diotela dio, «une berezia eta polita» izaten dela gaineratzen du, hori bai «beti ere hartzarengandik distantzia pixka bat mantenduz». Haur Hezkuntzako ikaslea da Bozate auzoan jaio eta bizi den gaztea. Bidaiatzea gustuko du «oraindik aukera handirik izan ez duen arren» eta aipatu digu «Sahara bisitatzea» litzatekeela «bere ametsik ederrena». Denbora librean «lagunekin elkartu eta besta egitea» gustuko duela erran digu, ziur inauteri sasoi honetan izanen duela horretarako aukera.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONoz-MUGAIRI.**

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/100.000€. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagarik base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

**IGANTZI.** Allinea etxea salgai eta ostatua eta jattetxea salgai edo errentan emateko. ☎626 429475/620 682406.

**DONEZTEBE.** 2 logelako pisua salgai. 15m<sup>2</sup>ko trastelekua. 120.000 euro. ☎630 160353.

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

**BERA.** Altzateko Plazan pisua errentan emateko. Igogailuarekin, 3 logela, egongela, sukalde zabalak eta berogailua. Guztiz ekipatua. ☎665 716126.

**LESAKA.** Pertsona bakkarentzako apartamentua errentan emateko. ☎678 855056.

**BERA.** Agerra auzoan pisua errentan emateko.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

Mobleztatua. Hiru logela, kalefakzio eta igogailuarekin. ☎659 963960.

**LESAKA.** Guztiz mobleztatua eta ekipatua dagoen duplexa errentan emateko. 1 edo 2 lagunentzako aproposa. Inguru polita eta lasaia. Berogailuarekin. ☎658 943702.

**ITUREN.** Pisua errentan emateko. ☎680 456866.

**BERA.** Agerra auzo ondoan pisua errentan emateko. 2 logela, kalefakzioa, telebista eta WiFi-ekin. ☎686 733349.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**ESKUALDEA.** Emakume batek pisua errentan hartuko luke Bortziririk, Baztan edo Malerreka inguruan. ☎647 233690.

**ELIZONDO.** Pisu edo

apartamentua errentan hartuko nuke. ☎659 308384.

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan emateko

**LESAKA.** Beheko Plaza 7an garaje plaza errentan emateko. ☎618 952640.

**LESAKA.** Albistur karrikan lur azpiko garajea errentan emateko. ☎618 962937.

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan hartzeko

**LESAKA.** 50 m<sup>2</sup> inguruko lokal bat errentan hartzeko behar da. ☎948 637050 (deitu bulego orduetan).

**LANA**

eskariak

**ELIZONDO, DONEZTE-**

**BE, LESAKA.** Emakume bat orduka pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, ostalaritzan lanean... ariko litzateke. ☎602 473794.

**Neska gazte batek** 4 edo 6 orduz lan eginen luke. Saltzaile moduan esperientziarekin. Kotxe propioarekin. ☎687 222320.

**42 urteko emakumezko** bat, hemengoa, intern bezala lanean ariko litzateke, astelehenerik ortziralerara. ☎666 665759/665 499030.

**ELIZONDO.** Asteko lan egunetan, goizetan orduka lan eginen luke emakumezko batek. ☎608 371643.

**Ikasle** bat arratsalde edo asteburuetan lanean ariko litzateke eskualdean. ☎634 087451.

**ELIZONDO ETA INGU-**

**RUAN** mutil gaztea lane-rako prest: zamalanak egiteko, ostalaritza, lore-zaintza, supermerkatuetan... ☎677 099329.

**LANA**

eskaintzak

**BERA.** Estetizista bat behar da. ☎690 126574.

**Eskualdeko** tailer batean auto konponketan aritzeko elektromekanikari bat behar da, Goi Mailako zikloa duena. Interesatuak curriculuma helbide honetara bidali behar dute: *curriculum853@gmail.com*.

**URDAZUBI.** Ikaburua jattetxean igandeatarako eta lanaren arabera zerbitzaria behar da, 12:00-etatik 17:00-etara. ☎948 599222.

**MOTORRAK**

saldu

**Karabana** Fendt tfb 470 salgai. Ongi zaindua eta gutxi erabilia. 6.500 euro. ☎657 609811/634 800064.

**Opel Vectra** DTI 16V 2.0 100 CV salgai, 2001. urtekoa, 220.000 KMrekin. Egoera onean, ez du inoiz arazorik eman. 1.600 euro. ☎620 735089.

**Opel Antara** autoa salgai. Duela urte bat errosia. ☎610 893804.

**ANIMALIAK**

oparitzeko

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(urtarrilaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 51 € (=)

**Zerri gizena**  
1,211 € kiloa. (=)

**Zerramak:**  
0,680€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,37

**1.koa** 4,11

**2.koa** 3,96

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,43

**1.koa** 4,15

**2.koa** 4,01

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruxak 120,00

idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00

idixkoak 150,00

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 5,90/6,50

8-10 kilokoak: 4,60/5,30



**ETXALAR.** urte eta erdi-ko artzain zakur emea oparitzeko. ☎ 697 387920.

**ANIMALIAK**  
salerosketak

**Ahotza salgai:** garagara, oloa, garia. Balota ttipiak, 4 eta 6 filez. ☎ 607 457004.



**DENETARIK**  
salerosketak

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎ 659 867287/ 699 461394.

**Pinudiak erosten** ditut, zutik daudela. **Pagoa, arkazi eta haritzak** ere bai, entresakak eta terreno

garbiketak. Aurrekontua ikusitakoan ematen dut. ☎ 658 015080.

**Bertako haritza, haritz amerikanoa eta gerezi plantak** salgai. ☎ 948 450888 (deitu eguerdi eta arratsetan).

**ORONOZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎ 676 242520.



**IRUN.** Taxi lizentzia salgai, jubiliazioa dela-eta. ☎ 630 123959.

**Tren moduko ohea** salgai. 3 ohe eta goiko ohearen azpian armairu bat. 3 metroko luzera eta 0,90 zentimetroko zabalera. ☎ 650 478375.



Argazkiko **paskualiaren kama** (remolkea) salgai. Egurrezkoa, egoera onean. 550 euro. Deitu ikusteko ☎ 948 510533.



**Gasezko galdara** salgai, 3 urte inguru dituen. ☎ 675 714360.

Flauta edo **zeharkako xirula** berria salgai. ☎ 675 714360.

Haritzeko **solibo** eta ha-beak (**bigak**) salgai. ☎ 639 608034.

**DENETARIK**  
bertzelakoak

**SUNBILLA.** Nire etxean, 0-3 urte bitarteko hau-

rrak zaintzeko zerbitzua eskaintzen dut. ☎ 678 537607.

**DENETARIK**

galdu-aurkituak

**LESAKA.** Zakur baten koilarearen mandoa aurkitu dute Gardelko parajeen, Agiña inguruan. ☎ 948 637747.

← hemen agertu nahi duzu?  
egin zure erosketa  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) en  
**IRAGARKIA**  
2 aldizkaritan eta interneten  
**8**  
EURO

# bardoak 2014

nafarroako taldekako bertso ekimena

**OTSAILAK 7 OSTIRALA**  
Lesakako Lindurrenborda sagardotegian, 19:30ean, bertso-saltoa  
Zortziko haundiena - Xirristi Orimtim  
Zubietako estalpean, 20:00etan, bertso-merendua  
Etxeko kontak - Mirristi Orimtim  
Erratzuko Zubipunta ostatuan, 21:00etan, bertso-merendua  
Lepatanatuek 2, txipiroien itzulera - Barardoak

**OTSAILAK 14 OSTIRALA**  
Berako gaztetxean, 21:00etan, bertso-merendua  
Bordboiak - Bertze maldikoak

**OTSAILAK 15 LARUNBATA**  
Leitzako Aurrera elkartearen, 18:00etan, bertso-saltoa  
Harrapazank - Miluzeko barafetak

Bertsozaleak

ttipi-ttapa

Zuzendaritza osoa eta osabak

WWW.BERTSOZALE.COM

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Leitzako **XUBAN TELLETXE** **BULDAINEK** urtarilaren 25ean 6 urte bete ditu. Zorionak eta urte askoz txapeldun!!!



**EKHI EZKURRA SANZ** sunbildarrik otsailaren 5ean 6 urte bete ditu. Zorionak gizontxo, Leitzako familiaren partetik muxu handi bat.



Sunbillako **ARGIA AGIRRE ARRETXEAK** otsailaren 3an 3 urte bete ditu. Auniz urtez! Sunbi-lla, Gerendiain eta Lekunberiko familiak eta atta, ama eta Oier.



**ANDRES ALTZUGARAI CONTRERASEK** 2 urte bete ditu. Zorionak Almandozko atautxi, amautxi eta osabaren partetik.



Etxalarko **IKER OTXOTEKO BENGOTXEAK** urtarilaren 28an 5 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.





Lesakako **MARKEL ETXEPARE AIESTARANEK** urte bat bete du urtarilaren 10ean. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Beñat eta Alainen partetik.



Berako **JON PAGOLAK** 10 urte bete ditu urtarilaren 27an eta Arantzako bere lehengusina **NAROA MUTUBERRIAK** 2 urte otsailaren 5ean. Zorionak biei eta auniz urtez familiaren partetik. Muxu handi bana!



Zorionak **LEIRE!!!** Otsailaren 2an 5 urte bete ditu. Auniz urtez gure printzesari eta mila muxu potoloi!!!



Legasako **GAXUKA ZELAIETA EULATEK** 7 urte beteko ditu urtarilaren 18an. Auniz urtez eta muxu handi bat Igantzikoi familiaren partetik.



Burlatako **LANDER ZABALETA MERINOK** urtea bete zuen urtarilaren 19an. Urte askoz eta muxu potoloak Leiza eta Iruñeko familiaren partetik.



Sunbillako **ANE JAUREGI GARTXITORENAK** otsailaren 6an urtea beteko du. Urte askoz eta musu potoloak Doneztebeko amabai eta osaba izeben partetik.



Leitzako **IORITZ eta AIERT DORRONSORO IPARRAGIRREK** urtarilaren 25 eta 30ean 4 eta 7 urte bete dituzte. Zorionak! Espero dugu ongi pasatu izana! Muxu eta besarkada handi bana aitaxo eta amatxoren partetik.




Goizuetako gure aitona **MANUEL ETXEBERRIA** eta amona **MARITXO ELIZALDEK** 62 urte egin dituzte ezkonduki. Ea datorren urtean aurre bezalako bazkari goxoarekin ospatzen dugun. Zorionak familia guztiaren partetik.




Goizuetako **EILA LARRALDE AROTZENAK** urtarilaren 31n urtea bete du. Zorionak eta muxu pila bat etxekoan partetik!



Sunbillako **IKER IBARRA MARIEZKURRENAK** otsailaren 7an 3 urte beteko ditu, Zorionak! Muxu handi bat zure arreba Uxueren partetik, eta mila muxu potolo familia guztiaren partetik. Segi horrela hemendik guttira atarekin tronpeta jotzen.



Sunbillako **IKER IBARRA MARIEZKURRENAK** otsailaren 7an 3 urte beteko ditu, Zorionak! Muxu handi bat zure arreba Uxueren partetik, eta mila muxu potolo familia guztiaren partetik. Segi horrela hemendik guttira atarekin tronpeta jotzen.



Egoitz joaldunak otsailaren 8an 22 urte beteko ditu. Auniz urtez lan-kideen partetik. Maixuxen frituak probatzeko esperan gaude! Ez haserretu!



**IZARO LARRAIOZ ALZURIK** ibeltzaren 14an 8 urte bete zituen. Auniz urtez Arantza, Urroz, Oiz eta Donostiako familiaren eta Lur bere zakurraren partetik.



**JOSU LARRAIOZ ALZURIK** ibeltzaren 28an 4 urte bete zituen. Auniz urtez, Arantza, Urroz, Oiz eta Donostiako familiaren partetik. Muxuak bihurri!



**IZARO eta JOSU LARRAIOZ ALZURIRI** Arantzako Senberroko koadrilaren partetik, auniz urtez eta muxu potoloak!



Leitzako **IRAIA MARTINIKORENAK** otsailaren 10ean urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik eta berexiki Alaiaren partetik.



Leitzako **MARITXU BALEZTENAK** otsailaren 12an urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki hiru biloben partetik.



Leitzako **MARITXU BALEZTENAK** otsailaren 12an urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki hiru biloben partetik.



egun zure erroseta  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
argazki soila 4€  
bikoitza 8€



## ttipi-ttapa-rekin

# AURREZTU

## EZKONTZAKO

### GONBIDAPENETAN



**100**  
flyer  
**150€**



**100**  
bi-orriko  
**170€**

Inprenta barne | Sobreak barne  
BEZa barne | Epea: 10 lan egun

Koskontako bidea 7, LESAKA | 948 635 458  
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net



# Ikastola, dena bat dator



## AURREMATRIKULAZIO GARAIA: OTSAILAREN 20 TIK 26 RA



**TANTIRUMAIRU IKASTOLA**  
ARRETXE, 13  
31770 LESAKA  
Tel. 948 637 308  
tantirumairu@ikastola.net  
www.tantirumairuikastola.com



**LABIAGA IKASTOLA**  
ALTZATE, 12  
31780 BERA  
Tel./Faxa: 948 630172  
948 631510  
bera@ikastola.net  
www.labiagaikastola.com



**NIE**  
NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA  
San Anton, 3 - 1 - 31001 Iruña  
T. 948 222196  
nie@ikastola.net  
www.nieikastola.net





**ttipi txartela**

TTIPI-TTAPA

PN IRIARTEA IGARTZA  
72675303-Q  
04/2014  
123456

**ttipi txartelarekin  
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZÖZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58

informazio gehiago: telefonon

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA  
Tel. 948 635 458 | Fax. 948 635 457  
info@ttipi.net | www.ttipi.net

**deSKONTUAK**



autoeskolak

BERA | %10 merkatuan

**FANTXIKE**

ELIZONDO  
%10, 30€tik gorako gastuan

**Amaia**  
ludi eta estremo zentrua

DONEZTEBE | %5 kosmetikan %10  
oparetan 50€tik gora. Promozioetan ez

**Agara**  
kirolak

BERA | %5 kirol artikuluetan

**oreka**

nutrizioa eta dietetika  
belardenda

LESAKA

%5 kontsulta eta produktuetan

**jaione** tindategia

DONEZTEBE

%10, 12€tik gorako gastuan

**zozketak**

606. ALEKO IRABAZLEAK

1- HAURRENTZAKO JERTSEA | Onin Art  
Garbiñe Lizasoain | **ELIZONDO**

2- LIBURUA + DVDA | Lanku Bertso zerbitzuak  
Jaione Iturzaeta | **ELIZONDO**

3- TXANTXARIAK DVDA | Urtxinba Eskola  
Izaskun Etulain | **ANIZ**

4- 2 LIBURU + 2 LIBURU | Elkar argitaletxea  
Gartxot | Ramon Apezetxea | **ALMANDOZ**  
Maskota | Argazkiak egiten | Jone Ordoki | **LESAKA**

5- 2 LIBURU + 2 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea  
Kumeak + Mugizaitet | Maria Larretxea | **ITUREN**  
Bila Nazarela + Coca Cola | Juanita Gofri | **ELIZONDO**

6- 2 SARRERA | Donostiako Aquarium-a  
M<sup>a</sup> Esther Mindegia | **AURTITZ**

**KAMISETA BAT**  
Onddo ta punto

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)




**AUPA KINTXO DVDA**  
Takolo, Pirritx eta Porrotx

[www.irrienlagunak.com](http://www.irrienlagunak.com)



**PUNPALAPLAN DVDA**  
Urtxinba eskola

[www.aisia.net](http://www.aisia.net)



**4 LIBURU**  
Erein argitaletxea

[www.erein.com](http://www.erein.com)



**ZEA MAYS diskoa**

[www.zea-mays.com](http://www.zea-mays.com)

**ZEA MAYS**



**2 SARRERA**  
Donostiako Aquarium-a

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**AQUARIUM**

